

428.ZENBAKIA-AZKOITIKO HERRI ALDIZKARIA -2023KO-OTSAILA



# MAXIXATZEN

**ZENBAKI HONEKIN BATERA**

+ GUKA ALDIZKARIA

POLITIKA

## IRAGANA, ORBAN



erreforma integralak

dica



**URRATEGI**  
INTERIORISMO  
bateratuta

[www.urrategiinteriorismo.com](http://www.urrategiinteriorismo.com)  
Arragasta 27 20600 Eibar Arraketa 9 20730 Azpeitia



## Gurekin erosketa eta salmenta prozesu osoa errazagoa da.

Pentsatu duzu inoiz **etxebizitza bat saltzerako** orduan **ze pauso jarraitu behar diren?** Eta salmenta horrek Ogasunaren aurrean nola eragingo dizun?

**Eta zuk, erosle,** ba al dakizu etxebizitza bat erosterako orduan pauso egokiak ematen badituzu, **errenta aitorpenean kopuru handiak desgrobatzea** lor dezakezula?

 **ALBERDI**  
ASESORIA

Alberdi Asesoriaren bidez uneoro hain garrantzitsua den eta bezero bakoitzari dagokion aholkularitza fiskal, profesional eta pertsonalizatua eskeintzen dizugu, kostu gehigarriarik gabe.

Zeu ere horrelako gestioaren bat egitekotan bazabiltza, zatoz guregana.

**Prozesu osoa Alberdi lantaldearen eskuetan utzi dezakezu.**

**Zure ametsak egi bihurtzen lagunduko dizugu**



# MAXIXATZEN 428

2023-OTSAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
ANE OLAIZOLA.

## Aurkibidea

- |    |                                                                                                         |    |                                                                               |
|----|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|-------------------------------------------------------------------------------|
| 5  | <b>Iritzia</b> Ane Olaizola, <i>Ezohiko aldetik.</i>                                                    | 26 | <b>Erretratua</b> Amaia Elias, barne diseinatzailea.                          |
| 6  | <b>Hitz bitan</b> Miren Elortza, ostalaria atzerrian.                                                   | 30 | <b>Plazan Bazan.</b>                                                          |
| 8  | <b>Izpiak eta hizkiak</b> Jon Andoni Martin eta Aitor Arruti, <i>Argi-txintak eta itzala.</i>           | 32 | <b>Elkarriketa</b> Alaitz Artola, Gizakia Helburu Lasaoko zentroko terapeuta. |
| 10 | <b>Iritziak</b> Juan Ramon Alberdi, <i>Errimekiko disonantzia</i> ; Rina Cabeza, <i>Gazte langilea.</i> | 36 | <b>Bestaldetik</b> Ione Zuloaga, Aranzadi zientzia elkarteke ikerlaria.       |
| 12 | <b>Erreportajea</b> Bizitza zartatuak.                                                                  | 40 | <b>Klik!</b> Itsasontzien arkitektoa.                                         |
| 18 | <b>Publierreportajea</b>                                                                                | 44 | <b>Iritzia</b> Ioritz Gonzalez, <i>Ez dira betiko...</i>                      |
| 20 | <b>Elkarriketa</b> Beñat Rodriguez, ilustratzailea eta musikaria.                                       | 45 | <b>Iritzi grafikoa</b> Intza Arakistain, <i>Dragoia eta andrea.</i>           |
| 24 | <b>Zakelmari.</b>                                                                                       | 46 | <b>Euskara</b> Miren Alberdi, <i>Esnatu. Bertsoa paperean.</i>                |
| 25 | <b>Iritzia</b> Kari Alberdi, <i>Maitasunaz eta abar.</i>                                                |    |                                                                               |

MAXIXATZEN

TOKIKOM

### Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu 1. 20730  
AZPEITIA  
943-85 36 17  
maxixatzen@maxixatzen.eus  
www.maxixatzen.eus

### Erredaktoreburua

Ane Olaizola  
**Erredaktore taldea**  
Andoni Elduaen  
Julene Frantzesena  
Aitziber Arzallus  
Ane Olaizola  
**Diseinu arduraduna**

### Iñaki Martinez Albizu Publizitate arduraduna

Egoitz Azkoitia  
**Zenbaki honetako  
kolaboratzaileak**  
Jon Andoni Martin  
Aitor Arruti  
Juan Ramon Alberdi

Rina Cabeza  
Saioa Murua  
Gorka Larrañaga  
Kari Alberdi  
Ioritz Gonzalez  
Intza Arakistain  
Miren Alberdi  
Asier Garate

### Administrazio Inprimategia

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)  
**Lege Gordailua:**  
SS-706/97  
**ISSN:** 1137-8891  
**Tirada:** 1.000 ale





## PUBLIZITATEA



**YOKOKIROLAK**  
www.yokokirolak.com  
Kale nagusia 90 - Azkoitia

**EGUZKI**  
belardenda  
dietetika  
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 34 47 AZKOITIA  
Urbitorre 9 bis 943-15 00 23 AZPEITIA

Web proiektuak  
Software ingeniariatza

**elkarmedia()**

info@elkarmedia.eus  
943-85 08 74



**Informatika Zerbitzuak**  
943-02 63 29  
www.etikinformatika.com



arkitekturaestudioa  
santaklara kalea 35 | 943083487  
www.brarkitektura.com



**PB sport**  
Itinerario: 7 • 943-02 56 88  
Kale Nagusia, 87 • 943-85 20 88  
AZKOITIA



NAGUSIA 81 • 943-08 30 32  
www.tta-kun.com • azkoitia\_ttakun@hotmail.com



Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62

**ETXEZA TABERNA**



Etxeza Etxea, Z/G. • 943-85 20 31



**ALDAKO**

**SARE ETA INFORMATIKA ZERBITZUAK**

SAREAK, IRTEERAK ETA  
ORDENAGAILU, MUGIKOR  
ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia  
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 52 76  
aldako.informatica@gmail.com



**- ENIEN**  
[ etxe - bizartzak ]

Immobilizazio  
Studio

**bertako-REKIN BAI!**  
igogailuak | ascensores

**ORDTARIKO ZERBITZUA**  
**100€-tik/hileko**

- Gaietx mantentze-lan profesionalari
- Gaietx berretako 24/7/365 zerbitzuari

**GIPUZKOA**  
**943 903 450**

www.bertako.eus



# Ezohiko aldetik



ANE OLAIZOLA

**N**ora joan dira gaztetan behin eta berriz entzuten nituen disko eta kasete zaharrak? Zein momentutan utzi dute etxea? Nork eman die horretarako baimena? Galdera horiek egiten dizkiot nire buruari irratian Lou Reeden abesti bat jarri dutenean. Urteak dira entzun ez dudala, baina gogoan ditut haren hitzak. Ordea, memoria astinduagatik, ez dut lortzen orduko altxor haiek non eta nola galdu ziren oroitzea. Memoria lausotzea izan daiteke nagusitzen ari zaren seinalea: gauza konkretu batez gogoratu ahal izateko jomugan jarri nahi duzun garai hura, gaztaroa, gero eta urrunago ikustea; lankideetako batzuk ume ziren kaseteak esku artean izan zituztenean, baina nik unibertsitatara egiten nituen joan-etorrietan, artean euskarri horretan entzuten nituen garaikide izan ez nuen Reeden doinuak. Denborak jartzen du bakoitza behar duen lekuan. Ni, profesio honetara sartu nintzenean, lantokiko benjamin nintzen, baina dagoeneko hanka bat sartua dut beteranoen kategorian; konturatzerako bihurtuko naiz klasiko.

New Yorkeko poeta klasikoa bera ere ez zen erdoildu denborak aurrera egin ahala, ordea. Alde gaiztotik nahikoa paseo eginda, belusezkoak ez ziren beste mugimendu batzuetan bilatu zuen hark egun perfekturako plana. Azken txanpa hartan, zapaldu zuen Euskal Herria ere, ezagutu zuen euskal pilota eta gozatu zuen gure mamiaz. Laster beteko dira hamar urte hura hil zela; zortzi, haren omenez euskal musikari talde bat elkartu eta artista amerikarrari omenaldia egiteko haren abestiak euskaraz grabatuta diskoa kaleratu zutenetik. Hain zuzen, *Lou Reed, mila esker* diskoa osatzen duten hamar abestien artean dago irratian jarri dutena. Zera kantatzen du abesti horretan Txema Murugarrenek, trikitiaz lagunduta: "Jaio bazara herrixka baten, badakizu ez dela ospetsurik atera hortik. Jaio bazara herrixka baten, eta etsita itotzen bazara, ezin ihes egiteaz, ez zugandik ez bizi zaren lekutik [...] Azal gaixo, begi motz, gay eta gizen, xomorrotzat hartuko zaituzte herrixka baten bazaude. Aita eraikuntzan lanean, nik ez dut horretarako dohainik. Zertarako duzu ba dohainik? Ospa egiteko hemendik".

Herrixka baino zerbait handiagoa den herri honetan ere badira hainbat zomorro sentitu direnak. Gizartearen konbentzioetatik kanpora edo ezohiko aldera jotzeagatik begitan hartuta, sotilki itoarazten ditugunak. Ezezagunak beldurtzen gaitu, eta beldurrak, usteldu. Ez ahaztu, ordea, tximeleta ere inoiz izan zela har, hegoak astindu aurretik. Memoria lausotu baino lehen eta denborak bakoitza bere lekuan jarri bitartean, han edo hemen, elkar gaitezen aske nahi gaituztenekin. ■■■

**HERRIXKA BAINO  
HANDIAGOA DEN HERRI  
HONETAN ERE BADIRA  
HAINBAT ZOMORRO  
SENTITU DIRENAK**

# Miren Elortza: "Norvegiako paisaiak izugarriak dira"

TESTUA: **ANDONI ELDUAIE**N

ARGAZKIA: **UTZITAKO**A

Miren Elortza (Azkoitia, 1995) Norvegiako Noresund herrian bizi da iazko azaroaren amaieraz geroztik. Herritik behin baino gehiagotan irten da atzerrira; batzuetan bisitari bezala, eta besteetan, ostalaritzan lan egitera. Bi hilabete igaro ditu Norvegiako paisaia "izugarrietan" murgilduta. Azkoitiarrak bere lehen bizipenak eta zirrarak zein diren azaldu du.

## **Norvegiara lanera joatea erabaki zenuen.**

Neguko denboraldia Andorran lanean igarotzea zen nire plana. Dena den, lagun batzuek esan zidaten Norvegiara etortzekoak zirela Costa Bravan lan egin nuenean gure arduraduna izan zenarekin, eta pentsatu nuen niretzat ere aukera ona izan zitekeela. Arduradunari idatzi nion, eta baiezkoa eman zidan.

## **Costa Bravan ere lan egindakoa zara, beraz.**

Udako bi denboraldi egin ditut han ostalaritzan; Sant Pere Pescador [Katalunia] herriko kanpin batean aritu nintzen lanean. Hain zuzen, hango jatetxeko jangelako arduradunaren bitartez etorri naiz Norvegiara.

## **Norvegiako zein lekutan zaude bizitzen?**

Noresund herrian, kasik galdutako herri batean, guztiz elurtutako mendi batean. Guztia elurretara bideratuta dago hemen, Norefjell Skisenter izeneko eski estazioari lotuta baitago herria. Nik lan egiten dudan konpainiak kudeatzen ditu eski estazioko hotela, spa eta jatetxea. Oro har, gustura nago hemen, Norvegiako paisaiak izugarriak dira eta. Alboan izoztutako aintzira erraldoi bat dago, eta auto lasterketak-eta egiten dituzte haren gainean.

## **Zein da zure lana?**

Zerbitzari lana egiten dut jatetxean, baina aparteko ordu batzuk ere egiten ditut hotelean. Lan egiten dudan jatetxea, moduren batean esatearren, mendian dagoen luxuzko McDonalds baten antzekoa da. Hoteleko lana askoz ere eleganteagoa da, handiagoa eta desberdina.

## **Zer nolako herrialdearekin egin duzu topo?**

Ez dut aukera gehiegi izan herrialdea ezagutzeko. Dena den, bada harritu nauen kontu bat.

Birziklatzeari eta energia berriztagarriei dagokienez, Norvegia punta-puntan dagoen herrialdea dela uste nuen, baina hemen ez dela ezer birziklatzen ikusi dut. Freskagarrien latak eta botilak soilik birziklatzen dituzte, eta hori egiten dute bueltan dirua ematen dutelako.

## **Nolakoa da Norvegian neguan bizitzea?**

Ordu gutxi izaten dira hemen egun argian. Norvegiara iritsi ginenean, 15:30 inguruan ezkututzen zen eguzkia; argitu, berriz, 08:30-09:00 aldean egiten zuen. Hasieran arraroa egiten zitzaidan egoera, baina denborarekin ohitzen joan naiz. Gainera, orain hasi da eguna zerbait luzatzen.

## **Zer egiten duzu denbora librean?**

Lanetik jai dudan egun guztietan, lagunekin eskiatzera joaten naiz, forfait-a doan baitugu; ahal dugun guztietan eskiatzen dugu. Bestela, arratsaldeetan trago batzuen bueltan elkartzen naiz lagunekin.

## **Zergatik jotzen duzu atzerrira lan bila?**

Lan baldintzak ezin dira alderatu. Hemen, zortzi orduko lanaldia dut, guztia kotizatzen dut, soldata daukat... Euskal Herrian jendeak sos batzuk ateratzera dago bideratuta ostalaritza; ez dira gerturatu ere egiten Costa Bravan edo Norwegian eskaintzen dituzten lan baldintzetara. Gainera, desberdina da oporretan dagoen jendearekin edo egunero jende berarekin lan egitea. Nahiago dut oporretara joandako jendearekin lan egitea.

## **Etxera itzultzeko asmoarekin joan al zara?**

Apirilaren 20an amaitzen da eski denboraldia Norwegian, orduan itxiko dituzte-eta eski pistak. Ekainean, ordea, udako denboraldia hasiko da, eta langileok aukera izango dugu udan ere lan egiteko; izan ere, mendi ibilaldiak, rafting-a eta antzerako ekintzak egiteko aukera dago. Maiatza Azkoitian igarotzeko asmoa dut, baina ez dakit udan zer egingo dudana. Beharbada, Costa Bravara joango naiz, baina, bestela, Norvegiara itzuliko naiz. Argi dudana da herritik irtengo naizela. ■



## Argi-txintak eta itzala

---

ARGAZKIA: **JON ANDONI MARTIN**

---

TESTUA: **AITOR ARRUTI**

---

Koloreek gidatuta so lehena,  
argira doakigu begia aurrena,  
itzalera jaitsi zaigu hurrena,  
beltzean nahasi doi gris iluna,  
hitzean babes, begirune  
leuna. ■■■







## Errimekiko disonantzia

**I**azko udazkenak azken ostikadak ematearekin batera izan ziren, aspaldian, bertso munduan eskainitako esku-zarta handienak ere. Iruñeko Nafarroa Arena pabiloian jokatu zen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia, eta hamahiru mila lagun baino gehiago bildu ziren bertan, azken bost urteetan jazo den bertso-festa erraldoiena bertatik bertara ikusteko, entzuteko eta gozatzeko xedearekin. Eta emaitzaren arabera, helburua ongi baino hobeto bete zuten. Beste asko izan ginen telebista edo irrati bidez jarraitu genuenak, eta bertakotasunak eskaintzen duen giroaren faltan, bertsoen magiaz gozatzeko aukera izan genuen. Oso zirraragarria egin zitzaidan gertakari hura, eta ia hilabete bi igaro diren arren, oraindik ere

bere inguruan entzundako eta hausnartutako hainbat kontu buruan darabiltzat. Ezen, horrelako ekitaldi soziokultural erraldoiak kontuan hartu beharreko hari-mutur batzuk bistaratu dizkit.

Horietako zenbait bertsolaritzaren barruan jazotako aldaketei buruzkoak izan dira, esaterako, bertsoaren bizkortasuna eta hausnarketa sakonagoak biltzen dituen errimazko istorioen arteko diferentzia; baina horiek adituen esku uzten ditut. Nire ardura, bertsozale gisa, jendearen baitan hautemandako kezken edota desadostasunen bidetik lerratu da. Batez ere bi azpimarratuko nituzke: bata, egungo bertsolariek erabiltzen dituzten zenbait hitz ez direla ulergarriak; eta bestea, iraganean bertso-munduak zuen landa-eremuko

kutsua, egun esparru urbanora higitu dela.

Lehenari buruz esan beharra dago bertsolarien hizkuntza ulergaitz bilakatzearena ez dela egungo arazoa, iraganean ere gertatzen zen. Gogoan dut, gaztetxo nintzela, nire oso gertuko pertsona bati Xalbador bertsolari handiari nahi bezain ondo ulertu ezinak sortarazten zion arrangura. Lazkano bertsolariari entzunda zeukan Xalbador izugarritzko bertsolaria zela, baina Iparraldeko euskalkia bide, ezin zion esaten zuen guztia behar bezala entenditu. Are gehiago, ulergaitasun hori medio, 1967ko Bertsolari Txapelketa Nagusian Xalbador buruz burukorako izendatu zutenean, ikuslegoak hain famatuak bilakatu diren txistuak jo zizkion. Nire iritziz, bertsolariei ulertu ahal izatea

HAUXE BAI JENEROA!



## ERREIMATEA



RINA CABEZA

## Gazte langilea

**K**risia hitzak definitzen du gure egoera, gure egunerokotasuna, eta krisia iritsi zenean, gelditzeko etorri zen. Krisia da bortizkeriaren kausa eta justifikazioa. Baina zer ezkututzen da krisi kapitalistaren atzean?

Gazte langilea da hezkuntzatik kanporatua izan dena baldintza ekonomikorik ez duelako, gazte langilea da etorkizunean zerbait izateko momentuan duen guztia ematen duena. Gazte langilea da, kasuan kasu, gurasoen menpeko, etxeko paretetatik askatzeko gaitasunik ez duena. Gazte langilea pobrea da eta gazte langilea pobrea izango da gizarte honetan.

Beraz, krisia ez da kausa, antolaketa kapitalistaren ondorio gordinenatariko bat baizik. Horregatik gazte langileok basakeria kapitalistarekin amaitzera jo behar dugu, norabide sozialista elikatuz, egungo gizartea gaindituz eta etorkizuneko gizarterako bidea irekiz.

Gaurdanik, emakume langilearen, ikaslearen, gaztearen, eta, oro har, langileriaren bizi baldintzak hobetzera begira antolatu behar gara. Horren adibide izan ziren GKS deitutako urtarilaren 28ko mobilizazioak, ofentsiba kapitalistari aurre egiteko mobilizatu ginen milaka pertsona Bilbon eta Iruñean. ■

entzulearen ardura gehiago da bertsolariarena baino. Euskara ongi menperatzen ditugun euskalkien soinua baino zerbait gehiago da. Hor dago euskaldunok egin behar dugun saiakera. Gaztelania hizkuntza oso aberatsa ei da, baina aberastasun hori sinonimoek eta era askotariko espresioek ematen diote. Beraz, bai bertsoak ulertzeko zein egunerokotasunean erabiltzeko, aberasteko ahalegin hori ezin bestekoa dugu. Eta egun, duela 50-60 urte baino erraztasun gehiago ditugu horretarako.

Bertsoak baserri girotik beste eremu eta ingurugiro batzuetara eginiko jauziari buruz esango nuke zenbait pertsonengan zerbait harrapatu diotenaren sentsazioa nabaritu dudala. Alabaina, bertsolaritzak esparru orotarako balio du, eta betidanik

funtsezkoa izan duen hausturarako joera egun ere oso nabarmena da. Bertsoa aldarrikapen bide bilakatu da, eta egungo gai sozialen garrantzia periferiaren aurpegitik jorratzen du. Feminismoa ardatz hartuta, genero berdintasuna, LGTB kolektiboaren eskubideak edo justizia soziala modu argian tratatzen dira. Gizartean "aho txikiarekin" normalizatutako gai horiei bertsolaritzak kantu ozena eta bozgorailua eskaintzen dizkie komunitatean txertatu ahal izateko, eta gainera, euskararen bidez; nolabait, arazoei buruzko hausnarketak euskaraz eginez eta irtenbidea emanez.

Saia gaitezen, beraz, euskararen mugak eta gure baitako helmugak zabaltzen. Bertsoen ulermenaz gain, geure mundu ikuskera ere aberatsagoa bilakatuko da. ■







# Bizitza zartatuak

1980ko martxoaren 29an, Floreaga auzoan hil zen Jose Maria Piris, ETak guardia zibil baten autoaren azpian jarri zuen eta autoa martxan jartzean askatuta lurrean gelditu zen bonba pakete bati ostikoa eman eta lehertuta. Fernando Garcia, berriz, larri zauritu zen. Bi lagunek 13 eta 11 urte zituzten orduan. ETaren bonba batek hildako aurreneko umea izan zen Piris. Erakunde publikoen aitortza jaso zuten biek iaz.

Testua: **Ane Olaizola**. Argazkiak: **Ane Olaizola, Azkoitiko Udala eta utzitakoak**.





**M**artxoaren 29a zen, 1980. urtea. Larunbatero bezala, futbol partida bat jokatzetik zihoazen Jose Mari Piris (San Vicente de Alcantara, Espainia, 1966-Azkoitia, 1980) eta Fernando Garcia (Zamora, Espainia, 1968) etxera, Floreaga auzora, azken horren aitarekin eta beste mutiko batekin batera. Floreagan dagoen Atanotarren plazara iristean, hiru haurrak autotik irten ziren, eta Garciaren aita autoa aparkatzen hasi zen. Pirisek lurrean zegoen pakete bati ostikoa jo zion; ETak auzoan bizi zen guardia zibil baten autoaren azpian jarritako bonba paketea zen, haren autoa martxan jartzean askatuta lurrean gelditu zen paketea. Pirisi lehertu zitzaion bonba hura, eta ez tandaren ondorioz, unean bertan hil zen; Garcia, berriz, larri zauritu zen. ETaren bonba batek hildako aurreneko umea izan zen 13 urteko mutikoa.

Juan Antonio Pirisek 3 urte zituen anaia hil zenean, eta gertaera hartaz dakiena senideek kontatuta jaso duela adierazi du hark. "Gurasoak azokan zebiltzan, eta leherketa entzun zutenean, azkar igo ziren auzora. Amak esaten du une batez okerreina imajinatu zuela, eta okerrenarekin egin zuela topo. Izan ere, umeak beti plaza hartan aritzen ziren jolasean", azaldu du telefonoz bestaldetik Pirisek. Garciak, berriz, memorian gordea du 11 urte zituela bere larruan bizi izan zuena: "Autoaren barrutik ikusi genuen paketea, eta arreta piztu zuen gudan. Umeak izanik, hura aurrea nork harrapatuko hasi ginen jolasean. Vegak -autoan zihoan hirugarren umeak- presa zuen, eta hura zuzenean abiatu zen etxera. Jose Mari autoaren alde batetik irten zen, eta ni, Vegaren atzetik, bestaldetik. Ez dakit zenbat metrotara egongo nintzen, baina ez zidan astirik eman lehergailua zegoen lekura iristeko". Laguna unean bertan hil zen, baina Garcia ere "bete-bete" harrapatu zuen lehergailuaren uhin hedakorrak: "Momentuan, ez nintzen jabetu gertatu zitzaidanarekin. Deskarga elektriko oso-oso gogor bat bezalakoa izan zela gogoratzen dut. Ez nuen kontzientzia galdu, baina momentu hartan itsu geratu nintzen. Aitari deitzen nion. Aire falta nuen, eta ez zidaten uzten aurpegia ukitzen, erreta nuelako. Anbulantzia etorri zen gero, eta ospitalera eraman ninduten". Une hartatik aurrerakoa ez du gogoratzen azkoitiarrak. Hainbat egun igaro zituen Zainketa Berezien Unitatean, eta ondoren, bere onera etortzen hasi zen. "Medikuak ez ziren oso baikorrak, baina pixkanaka, aurrerapausoak ematen hasi nintzen. 11 urte izanik, sasoiko nengoen, eta eskerrak horri".

Lau hamarkada igaro dira ordutik, baina Pirisen senideek zein Garciak berak bizirik dute gertaera hark eragin zien guztia: "Bizitza eten zigun atentatuak". Pirisen senideek beren jaioterrira, San Vicente de Alcantarara, itzultzea erabaki zuten, biktimaren anaiak azaldu duenez: "Batetik, Jose Mariaren hilketaren irudia genuen Azkoitian, eta gurasoek gertaera haren oroitzapena oso presente

edukiko zuketan han jarraitu izan balute. Bestetik, garai hartan, biktimek eta haien senideek jasotzen zuten tratua ez zen gaur egungoa bezalakoa; esango nuke biktimek hiltzaileek baino erru handiagoa izaten zutela".

Pirisek anaia, eta Garciak "lagun mina" galdu zuen: "Garai hartan, umeok egun osoa kalean igarotzen genuen, eta biok auzo berekoak izanda, asko jolasten genuen elkarrekin". Garciak eta haren familiak Azkoitian jarraitu zuten bizimoduarekin, eta Garciak adierazi duenez, "ahal zuten moduan" egin zuten aurrera: "Bizi baino, biziraun egin genuen, horren ondorio guztiekin". Hasierako hilabeteak "oso gogorrak" izan ziren harentzat: "Ezin nuen lorik egin, amesgaizto izugarriak izaten nituen... Nire gaindi zegoen egoera". Ordea, aitortu du, umea izanik, ez zela gertatutakoaren jabe egin: "Ez nuen ulertzen zer gertatu zitzaidan". Horrez gain, biktima izaera "isilean" gorde zuen familiak, Garciak azaldu duenez: "Amak isilik egoteko esaten zidan. Urteetan barneratzen joan nintzen gertatutako guztia, eta orain ohartzen naiz gurasoek hartu zutena ez zela izan erabaki zuzenena. Dena den, garai hartan beraiek sentitzen zutena hori zen, isilik egon beharra. 80ko hamarkada oso gogorra izan zen, gurasoek beldurra zuten, eta ahal zuten ondoen babestu ninduten".

Piris hil eta lau hilabetera, ETaren eskutitz bat jaso zuen haren familiak. Piris ez zela haren "jomuga" izan zioen: "Anaia hiltzea albo kaltea izan zela esan zuen ETak eskutitz hartan, baina ez zuen atsekaberik adierazi. Horren ondotik, semerik eta anaiarik gabe bizitza berregiten saiatu ginen". Azkoitian jazo zen gertaeraren harira, Francisco Fernando Martin, Jon Agirre Agiriano, Josu Zabarte eta Jose Gabriel Urizar 23 urteko espetxealdira zigortu zituzten handik urte batzuetara, eta beste zazpi urteko espetxe zigorra ezarri zieten haiei Garciari eragindako lesioengatik.

### **"Beharrezko aitortza"**

Garai hartan babes "urria" jaso zutela gogoratzen dute Garciak eta Pirisek, batez ere erakundeei dagokienez. Hala dio bonba lehertuta hil zen umearen anaiak: "Extremaduran ondo hartu gintuzten, baina jendeak ez zuen gurekin gaiaz hitz egiten. Erakundeen aldetik, berriz, babesgabe sentitu ginen, eta indemnizazioaz harago, ez ziguten bestelako laguntzarik eskaini; psikologikoa, esaterako". Ildo beretik hitz egin du Garciak ere: "Ez genuen deirik jaso; inork ez zidan galdetu zer moduz nengoen. Erakundeek abandonatu egin gintuzten. Herriari, berriz, ezin genion ezer eskatu, are gutxiago orduko testuinguru hartan; errespetua, besterik ez". Horri lotuta, Garciak azaldu du "beti" errespetatu izan dutela Azkoitian.

Erakunde publikoek iaz egin zieten aurrenekoz omenaldia Piris zein Garcia sendiei, gertaera hura jazo zenetik 42 urtera –hasiera batean 2020an ziren egitekoa, baina atzeratu egin zuten, izurriagatik–. Hildakoaren oroimenez Floreaga auzoan jarrita dagoen monolitoaren ondoan elkartu ziren haren senideak, Garcia eta haren gertukoak nahiz erakundeetako ordezkariak. Pirisek zein Garciak azpimarratu dutenez, "beharrezko aitortza" izan zen ekitaldi hura, baina "lehenago" egin behar zuketela uste dute. Era berean, omenaldi hura Extremadurako Terrorismoaren Biktimen Elkarteak sustatu izana "adierazgarria" deritzo azkoitiarrak.



Garciarentzat berebizikoa izan zen iazko aitortza; aurrera egiteko "katarsia". Izan ere, urteetan barnean zeramana kanporatzen hasteko bulkada izan zen egun hura. "Mina onbideratzen hasten lagundu dit. Gertatutakoa isilean irensten aritu naiz urte askotan, normalena hori zela pentsatuz. Baina ezagutzen ez nituen hainbeste pertsonen maitasuna jaso nuenean, lehertu egin nintzen". Lau hamarkadaz betetzen aritu zen edalontziak "gainezka" egin zuela eta, tratamendu psikologikoari ekin zion: "Omenaldiaz geroztik hasi naiz atentatuaz hitz egiten. Orain ari naiz aurrera egiten eta barrukoa kanporatzen, lagunen, ingurukoen eta psikologoaren laguntzarekin".

Pirisen hitzetan ere, "eskertzekoa" bezain "garrantzitsua" izan zen herrian egin zieten aitortza. Baina gogorra ere bai, orduko "oroitzapen guztiak" berriz bizi ahal izan zituztelako. Gizarteak gertaera hura ez ahaztea nahi du sendiak, eta horretarako, hitzaldiak eskaintzen ditu Pirisek Extremadurako eskoletan. Izan ere, Extremadurako Terrorismoaren Biktimen Elkarteko kidea da, eta ETaren beste biktima batzuekin bizipenak partekatzea "lagungarria" dela azpimarratu du hark: "Horrela, ez zaudela bakarrik ikusten duzu. Gaiaz libreki eta eroso hitz egin dezakezu beraiekin, guztiok igaro garelako egoera beretik eta gertatuak antzeko moduan eragiten digulako".

#### Barneko eta azaleko zauriak

Martxoaren 29ko gertaera hark sortutako "zama" bizkar gainean dute bi familiek, eta azpimarratu dutenez, orduan agertu zen itzala gaurdaino iritsi da. Hala dio Pirisek: "Sentimenduek bizirik jarraitzen dute familian. Ama tratamendu psikologikoa ari da jasotzen azken 43

Jose Mari Piris, goian, eskuinetik bigarrena; Fernando Garcia, behean, ezkerretik aurrena.

**GARCIA: "IAZ JASOTAKO AITORTZAK LAGUNDU DIT MINA ONBIDERATZEN HASTEKO"**

**PIRIS: "ESKERTZEOA ETA GARRANTZITSUA IZAN ZEN OMENALDIA, BAINA BAITA GOGORRA ERE"**

urteetan, depresioa duelako". Antzeko hitzak izan ditu Garciak ere: "Nire ama oso sentibera zen, eta bihotza zatitu zion gertaerak. Atentatuaz geroztik, obsesionatu egin zen; ikaratu egiten zen kalera irten behar nuen bakoitzean, halako zerbait berriz gerta zitekeela pentsatzen zuelako. 54 urterekin hil zen, bihotzekoak jota; ezin zuen gehiago".

Garciak azpimarratu du antsietatea jasan izan duela azken urteetan, baina depresiorik ez, "jarrera baikorra" duelako bizitzarekiko. Azkoitiarrak orbainak ditu aurpegian eta eskumutur batean, eta bistaren zein entzumenaren zati bat galdua du egun: "Lehen, zerbait ikusten eta entzuten nuen eskuinaldetik; orain, ezer ez. Ezkerreko begitik, berriz, %50 ikusten dut, eta katarata bat daukat. Ezkerreko belarriko entzumenaren %60 ere galduta dut. 54 urte ditut, baina 80 urteko batek baino gutxiago ikusten eta entzuten dut". Azpimarratu duenez, umetan izandako ezbehar haren ondorioek "goitik-behera" eragin dute Garciaren bizimoduan; besteak beste, lana aurkitzeko garaian. Eta adinean aurrera egin ahala, agerikoago egin zaizkio ondorioak. "18 urterekin Realak fitxatu ninduen, baina mugak nituen. Beharbada, oztopoak eduki izan ez banitu, bestelako ibilbidea izango nukeen futboleant. Gaztea zarenean indarra izaten duzu, baina heltzen ari zaren heinean, gehiago pisatzen dute egunerokotasunean dituzun mugek".

Azken urteetan, zauriak ixten saiatu dira bi familiak, eta elkarrekin egin duten harremanak horretan lagundu egin die. "Nire amak betidanik zuen Fernando ezagutzeko gogoa, eta liburuaren atal bat ixten lagundu digu harekin harremana hasteak", adierazi du Pirisek. Izan ere, Pirisen familia Espainiara bizitzera joan zenean, harremana galdu zuten bi sendiek. Duela hiru urtetik ezagutzen dute elkar Garciak eta Pirisek, eta Azkoitian egin zieten omenaldian elkartu ziren lehenengoz. Haiek adierazi dutenez, topaketa hark balio izan zien bi familien hartu-emana estutzeko. Hala azaldu du Pirisek: "Iaz, Garciak Extremadurara zetorrela esan zidan, eta gurasoak bisitatzeko modurik izango al zukeen galdetu zidan". Garciak dioenez, hunkigarria izan zen: "Pirisen gurasoak ezagutzea falta zitzaidan zauri bat itxi ahal izateko. Emozio handiko elkartzea izan zen, eta asko lagundu zidan haiek besarkatzeak".

Dena den, zauri guztiak ixtea "ezinezkoa" dela uste du batak zein besteak. Zentzu horretan, gertaera haren gaineko sentipenak







berberak dira lehen eta orain Pirisentzat. "Ez dut [gertaera] ez ahazten, eta ez barkatzen. Norbaitek barka badezake, berak ikusiko du... Niri anaia kendu zidaten, eta familia osoa izorratu zuten. Hori ezin da barkatu". Haren ustez, "ezin" da esan anaia hiltzea albo kaltea izan zenik: "Albo kalteak gerretan egoten dira". Horrez gain, ETako zenbait presok eta haren zenbait biktimak egin izan dituzten elkarrizketez ere hitz egin du hark: "Beharbada, batzuei zerbaitetarako balio izango die, baina ni ez nintzateke nire anaiaren hiltzaileen aurrean eseriko, besteak beste, ez dakidalako zer erreazio izango nukeen". Garciak azaldu duenez, berari ere proposatu izan diote elkarrizketa horietako batean parte hartzea: "Ezagutzen dut hori egin duenik, eta ondo iruditzen zait. Balio izan badio, zoragarri, errespetatzen dut, baina nik ezin dut".

Pirisen kasuan ez bezala, 1980an izan zen gertaera hark sortutako sentimenduak aldatzen joan dira Garciarenean. "Hasieran, kostatu egin zitzaidan zer gertatu zen ulertzea. Gero, adinean aurrera egin ahala, amorrua sentitzen nuen; ezintasuna, mina, eta, batez ere, tristura. Gorrotoa, ordea, inoiz ez dut sentitu". Bada, halere, bere buruari "behin eta berriz" errepikatzen dion galdera bat: "Zergatik?". Haren ustez, "zentzurik gabeko zoramen kolektiboa" izan da Euskal Herriko gatazka politikoa: "Pertsona zibilen kontra egitea, zer gatazka mota da? Ez dago justifikaziorik indarkeriaerantzako. Familia osoak hautsi dira, alde batekoak zein bestekoak, eta zer lortu dugu? Gaur egun gauden egoerara irits gintezkeen hainbeste heriotza eta min eragin gabe". Azkoitiarren hitzetan, "atzean utzi" behar da gertatutakoa, eta "aurrera egin, egoera gainditu". Era berean, batez ere belaunaldi berriek informazioa izatea premia kotzat jo du hark, "gertatutakoa ez dadin errepikatu". ■

Ezkerrean, Juan Antonio Piris. Eskuinean, Fernando Garcia.

**PIRIS: "NIRI ANAIA KENDU ZIDATEN, ETA FAMILIA OSOA IZORRATU ZUTEN. HORI EZIN DA BARKATU"**

**GARCIA: "EZINTASUNA, MINA ETA BATEZ ERE TRISTURA SENTITU DUT; GORROTOA, ORDEA, INOIZ EZ"**

# Ugarte burdindegia, txikitasunean handi

1953. urtean Joxe Ugarte eta Axun Solaberrieta senar-emazteek sortutako saltokia hazten joan da, eta 70 urte eta gero, bailaran erreferentziazkoa izateko lanean jarraitzen du Ugarte burdindegia.

Teknologia, konpromisoa eta kalitatea. Horiek dira Ugarte burdindegiaaren ildo nagusiak. "Enpresaren eta ezagutzaren eguneratze teknologikoa, bezeroekiko dugun konpromisoa, partikularrak nahiz profesionalak izan, eta horien beharrezanez erantzuteko nahia, eta aurrera egitea ahalbidetuko diguten proiektu berritzaileak egiteko interesa, beti ere, geure buruari ezarri diogun kalitatearen ildotik", dio Josu Ugarte burdindegiko arduradunak. Oinarri horietatik abiatuta, gaur egun Zestoan bi salmenta puntu izatera iritsi da burdindegia. Lehena, ohiko burdindegia bezala ezagutzen denari eskainitakoa: bere jarduera gehiena etxeko gaien salmentan, brikolajeetan, landa-lanetako erremintetan, sarrailagintzan eta pinturan dago oinarrituta. Eta hornidura industrialari eskainitako



bigarren salmenta puntuan, mekanizazio tresna, makineria profesionala eta torloju aukera zabala aurki daiteke, beste produktu askoren artean.

Salmenta puntuez gain, ordea, Ugartek baditu beste burdindegiengandik bereizten duten aparteko zerbitzuak: "Garraio zerbitzu

propioa dugu Urola Kosta eta Debarrena eskualdeetan banaketak egiteko, eta akordio eksklusibo garrantzitsuak ditugu ebaketa tresnen, urratzaileen, metrologiaren, lubrifikatzaileen, eskuzko eta altxatze tresnen sektoreko fabrikatzaileekin", gaineratu du arduradunak.

1953. urtea zen Joxe Ugarte eta Axun Solaberrieta senar-emazteek burdindegia zabaldu zutenean. Garai hartako herriko ostalaritza jarduera garrantzitsuak eta ondorengo urteetan industria jarduera indartzeak eragin positiboa izan zuten burdindegia txikian.



Ugarte burdindegia Zestoako eta inguruko enpresa garrantzitsu bihurtu zen, eta gaur egun, modu berean jarraitzen du. 70 urteko ibilbideak emandako esperientziak erakutsi du bide onetik doazela, eta aurrerantzean, halaxe jarraitzeko asmoa dute. Gainera, zailtasunak eta oztopoak gainditzeko ahalmena ere erakutsi dute. Izan ere, merkataritzak orokorrean, eta COVID-19ak eraginez, dituen zailtasunei aurre egitea lortu du Ugarte burdindegia. "Txikiak gara, herri txiki batekoak, horrek dituen eta eragiten dituen zailtasunekin. Azkenean, biztanle gutxi izateak bezero gutxi ekartzen ditu. Baina, guztira, 11 langilek osatzen dugu burdindegia, eta Zestoa bezalako herri batean handiak gara. Gainera, eskualdeko enpresa ugarentzat egiten dugu lana. Bide horretatik jarraitu nahi dugu, bailaran erreferentziazkoak izan arte", gaineratu du Ugartek. ■■■

### Zozketak

70. urteurreneko ospakizunetan sartu da, beraz, Ugarte burdindegia. Urteurren berezia ospatzeko eta bezeroen leialtasuna saritzeko, zozketa bereziak egingo ditu. Zortzi zozketa izango dira, denera: batetik, lan egiten duten enpresen eta profesionalen artean lau zozketa; eta, bestetik, saltokietara joaten diren bezeroen artean beste lau.

**1. Enpresek eta profesionalek** 300 euroko erosketak egiteagatik zozketan parte hartzeko aukera izango dute, eta, irabaziz gero, Ugarte burdindegian bertan gastatzeko 500 euroko bonua eskuratuko dute.

**2. Bezeroek**, aldiz, hamar euroko erosketa eginez gero, beren datuak sartzeko txartela jasoko dute, eta urtaro bakoitzaren amaieran, 500 euroko balioa duen produktu sorta baten zozketan parte hartuko dute.

### UGARTE BURDINDEGIA

Toribio Altzaga 16 | Portale Kalea 3 | ZESTOA

943-14 71 54 ☎ 608 33 93 39

f i ugarteburindegia | [www.ugarte-zestoa.com](http://www.ugarte-zestoa.com)



# "Hasieran, musikak eramam ninduen ilustrazio mundura"

**BEÑAT RODRIGUEZ** ILUSTRATZAILEA ETA MUSIKARIA

Musikak ilustraziora nola, sorkuntza grafikoak musikaren hainbat generotara hala. Bi aldeko norabidean ari da lanean azkoitiarra, Hartz musika taldean eta Olrait estudioan zentratuta. Sormenaren askatasunaz nahiz mugez aritu da solasean, naturaltasunez.

Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Ane Olaizola eta Gaztezulo**.

**P**asioak bi, behintzat, baditu Beñat Rodriguezek (Azkoitia, 1994): ilustrazioa eta musika. Sorkuntza du ogibide, bizibide, eta sorkuntza ikusten du gauzak aldatzeko bidetzat. Hartz musika taldeko kidea da, eta Olrait estudioa du erakusleaho. Estudioaren leloak barnebiltzen du azkoitiarraren ideala: *Sorkuntza da bide bakarra*. **Musikaria eta ilustratzailea. Zer nahiago? Eta zergatik?** Hori aitaren eta amaren artean aukeratzea bezalako zerbait da. Dena den, musika esango dut; izan ere, ilustrazio lanak musikaren harira iritsi zaizkit.

**Zerk eramam zaitu ilustrazioaren mundura?**

Betidanik erakarri izan nau mundu estetikoak, hau da, kartelek, posterrek, diskoen karatulek eta abarrek. Azkoitiko txosnaguneko festa batzordearen kartelak egiten hasi nintzen, banekielako Photoshopean pare bat txorakeria egiten. Gero hainbat enkargu hasi zitzaizkidan iristen, musika taldea zuten lagunena izan zen, 2017an kaleratu zuen *Rodeo* diskoarena izan klabea izan zen niretzat, orduan hasi nintzelako

halako lanekin interesatzen. Harrezkero, denborarekin, ikasten joan naiz.

**Olrait estudioa zabaldu duzu. Zer moduzko esperientzia ari da izaten?**

Gizarte Langintza ikasketak egin nituen, baina ikusi nuen hura ez zela nirea. Ondorioz, diseinuko goi mailako gradu bat egin nuen. 2015-2016 urteen inguruan hasi nintzen neure diseinuak-eta egiteko estudio propio bat sortzeko ideari bueltaka. Estudio bat egituratu nahi nuen, nire ilustratzeko estiloa eta niri gustatzen zaizkidan gauzak bilduko zituen.

**Zergatik Olrait?**

Ignatius Farray komikoaren omenez jarri nion izen hori, hark asko esaten duelako "olrait". Hark dioenez, komediak bizitza salbatu zion, eta nik diskurtso berbera daukat diseinuari eta musikari, batez ere sorkuntzari, dagokionez. Izen horrek balio izan dit egiten dudana lanari bilgarria jartzeko. Gainera, *Sorkuntza da bide bakarra* da estudioaren leloa, egungo egoeraren aurrean bide bakarra hori dela uste baitut.

**Zer lan mota egiten dituzu?**

Etxean aritzen naiz sorkuntza lanetan. Batez ere, orain arte, musikarekin zer ikusia duten lanak





egin ditut; posterrak, azalak, kamisetak... Azken aldian, baina, euskal kulturaren elementu batzuekin ari naiz lanean; horiek *vintage* moduan ilustratzen ditut. Orain dela gutxi, adibidez, Takolo, Pirritx eta Porrotxen poster bat egin nuen, eta 50eko hamarkadako kartel baten itxura eman nion. Bestalde, musikari batzuk hartu eta komiki zaharrak bailiran egin izan ditut portadetan. Musikarekin oso lotuta dago nire jarduna.

### **Esperimentatzen aritzen zara, beraz?**

Bai, pixka bat bai. Dena den, ez dakit joera nostalgikoa daukadalako al den, baina asko gustatzen zait estetika *vintage* hori erabiltzea.

### **Gaztezurekin elkarlanean, *Kantu eskukadak* ilustrazio eta testu liburuaren bigarren edizioa kaleratu duzu duela gutxi. Zer harrera izan du proiektuak?**

Oso ona. Lehen 2020an atera genuen, pandemiaren urte fantastiko hartan, eta dezente harrera ona izan zuen. Ez genuen espero halako babesa jasotzerik, egia esan. Izan ere, zaila da kulturaren bueltakoa den eta atal bakoitza irakurtzen, entzuten nahiz ikusten hamar minutu baino gehiago igaro behar diren liburu batek harrera oso ona izatea. Orduko hartan ale guztiak agortu ziren, eta oraingoa ere bide beretik doa.

### **Nolatan gauzatu duzu Gaztezurekin proiektua?**

Editorial baterako ilustrazioak eskatu zizkidaten. Justu Gaztezulok 200. zenbakia kaleratu behar zuela eta, festa egitekoak ziren, eta jai haren kartela egin nuen. Ordurako hasita nuen nire eskukaden proiektua; hasita nengoen musika eta eskuak batuta ilustrazioak egiten. Ehun ilustrazio egitean, zerbait egin al genezakeen galdetu nien Gaztezulokoei, eta orduan hasi zen guztia.

### **Ilustrazio denak eskuekin dute lotura, beraz?**

Diseinu ikasketak egiten ari nintzela, irakasle batek askotan esan zidan serie ilustrazioak egiteko, estilo kuriooa nuela eta. Nire estiloa pixka bat zehazteko, elementu bat hartzea gomendatzen zidan, harekin serieak egiteko. Bi urteko ikasketa prozesuan irakasle hari ez nion kasurik egin, baina ikasketak bukatzean ikusi nuen interesgarria izan zitekeela maite nituen bi diziplinak –musika eta ilustrazioa– lotzea.

### **Serie potoloa osatu duzu dagoeneko, ezta?**

Bai, 200 ilustrazio egin ditut jada *Kantu eskukadak* proiektuaren barruan. Serieen kontua ez zitzaidala gustatzen esaten nion irakasle hari, baina...

### **Zer moduzko esperientzia izan da?**

Ona. Ume bat edukitzea bezalako zerbait izan da; gazi-goza, gogorra eta polita. Alde batetik,

gogorra izan da, eskukadak ateratzeko gustatzen zitzaidan eta gustatzen ez zitzaidan musika asko entzun dudalako. Zentzu horretan aurreiritziak alde batera utzi ditut.

### **Zer aurreiritzi?**

Euskal gizartean oso lerrokatuta bizi gara, etiketen arabera, eta kostatu egiten zaigu hortik ateratzea. Gogoan dut, adibidez, duela urte batzuk nire adin bueltan ez zegoela ondo ikusita flamenkoa entzutea. Nik rocka entzuten dut batez ere, baina beste musika mota batzuk edo kanta batzuk entzuteko ariketa egin behar izan dut. Jendea bultzatuko nuke hori egitera.

### **Aberasgarria izan al da bidea?**

Bai, oso. Lehen pentsaezina zen niretzat musika elektronikoa egiten duten talderen baten edo oinarri elektronikoa duten kantak egiten dituen musikariren baten kontzertura joatea. Gaur egun, ez zait axola.

### **Ilustrazio lanei esker, musikaren bidea urratu duzula esango al zenuke?**

Hasieran musikak eraman ninduen ilustrazioen mundura, eta orain, berriz, ilustrazioek zabaldu didate musikaren aukera.

### **Segidarik izango al du eskukaden proiektuak?**

Nik jarraitzen dut lanean. 201 eginda ditut, eta pentsatzen dut beste ehun ere egingo ditudala. Dena den, ez dakit 300era iristean beste liburu bat aterako al dugun.

### **Irakurleen aldetik, orain arte zer erantzun jaso duzu?**

Oso ona. Irakurleen aldetik ez ezik, musikarien aldetik ere bai. Liburuaren aurkezpenean, esaterako, Raitx musikariak parte hartu zuen, eta hark adierazi zuen liburuaren formatuak binilo bat zabaltzerakoan egiten den liturgia gogorarazten ziola; hau da, biniloa hartu, patxadaz aztertu, ilustrazioak ikusi...

### **Nola deskribatuko zenuke ilustratzaile baten lana?**

Prekarioa eta gogorra, nahiz eta une oso politikak ere bizi. Jendeak pentsatzen du marrazkitxo bat egin eta listo dela. Askotan, beste ogibide askorekin gertatzen den bezalaxe, ilustrazio batean ez da islatzen atzean dagoen lan guztia. Musikan ere gauza bera pasatzen da, adibidez.

### **Dena den, bide horretan jarraitzea erabaki duzu.**

Kulturan aritzen den edo aritu nahi duen pertsona orok joera masokista bat badugula uste dut. Era berean egoista ere bai, agian, barrenak hustea nahi izaten dugulako eta barruan duguna plasmatu nahi izaten dugulako. Ez kasu guztietan, batzuetan bezeroentzat lan egiten dugulako eta halakoetan adostasunera iritsi behar izaten



Rodriguez eta Gaizka Izaguirre 'Kantu eskukadak' lanarekin.

**"BETIDANIK ERAKARRI IZAN NAU MUNDU ESTETIKOAK; KARTELEK, POSTERREK, DISKOEN AZALEK..."**

**"IRAKASLE BATEK ASKOTAN ESAN ZIDAN SERIE ILUSTRAZIOAK EGITEKO, ESTILO KURIOSOA NUELA ETA"**

**"BADITUT IDEIA BERRI BATZUK, BAINA MOMENTUZ, HARTZ DA NIRE TALDEA"**

delako. Baina lan askatzailea da nahi duguna transmiti dezakegulako.

**Musikan ere aritzen zara. Hartz taldeko kide zara 2016tik. Zer moduzko esperientzia ari da izaten?**

Ona, nahiz eta gorabeherak izan ditugun, taldekide batzuek laga egin dutelako eta berriak batu direlako. Etapa berri batean gaude orain, baxu jotzaile berri bat gehitu da taldera, eta sortze prozesuan gaude, abesti berriak egiten. Halako gauzak, baina, poliki eta lasai joaten dira, eta ikusiko dugu zer ateratzen den.

**Hartz izan al da zure lehen musika taldea?**

Bai. Intza Arakistain eta biok bertsio gauetan hasi ginen parte hartzen, eta hirugarren lagun bat batuta, Hartz sortzea erabaki genuen. Baditut ideia berri batzuk, bakarlari gisa aritzea adibidez, baina momentuz Hartz da nire taldea.

**Zer da Hartz zuretzat?**

Oso eroso sentiarazten nauen inguru bat. Orain osatu dugun taldearen, laguntzen digun jendearen eta entsegu lokala partekatzen dugunon artean oso giro sanoa sumatzen dut; etxe bilakatu da Hartz.

**Zer musika estilo gustatzen zaizu gehien? Eta zer talde?**

Ez daukat gogokoenik. Azken urteetan abestiak transmititzen duen horretan zentratu naiz, abesti jakin batean baino. Rocka eta heavy metala entzuten ditut, horien zalea naiz, baina irekita nago. Gure taldeko bateria jotzaileak, adibidez, flamenkoa oso gogoko du, eta baxu jotzaileak, berriz, punka entzuten du; beste mundu batzuk zabaltu dizkidate horiek. Denean, baina batez ere musikaren munduan, asko lerrokatzen gara estiloetan eta, baina batzuetan Sara Zozayak dioen moduan "esan eta ixo" egin behar genuke.

**Nola ikusten duzu Euskal Herriko musikaren panorama?**

Panorama ez da oso ona [barrez]. Gauzak aldatzen ari dira, gero eta emakume gazte gehiago dagoelako eszenan. Dena den, toki handiek eta ertainek betikoek hartzen dituzte. Horregatik, ez dakit norainoko babesa ematen zaion lehen underground zen eszena horri, batez ere pandemia ezkerro.

**Konponbiderik ba al du horrek?**

Hedabide handiek, esaterako, mikrofono gehiago erabili behar lituzkete. Adibidez, Shakirak atera duen azken abestia gutxiago entzun daiteke, eta herrietan zer mugimendu dagoen arreta jarri. Baina betikoa da kontua. Panorama lehen ere ez zegoen txukun, eta pandemiak are gehiago azaleratu du egoera kaskarra. ■■■



## PUBLIZITATEA

**taberna zurt**

OGITARTEKOAK • SANDWICHAK ETA HAMBURGESA  
ENTZALADAK • RAZIOAK  
GARAGARDO ETA ARDO ESKAINTZA ZABALA

TERRAZA HANDIA  
ZUZENEKO EMANALDIK

KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

ARTISAU PIZKAK  
ENTZALADAK  
PINTXOAK  
PLATER KONBINATUAK  
RAZIOAK  
OGIARTEKOAK  
ARDO ESKAINTZA ZABALA  
SOMU ETA ANGELOAK  
PIZZAK  
LARRUINAK ETAN OLBU ARTE PIZKIA

**LATZ**  
TABERNA

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19

**ZERBER**  
**BURDINDEGIA**

BEHAR DUZUNERAKO ALOR GUZTIAKOK GAIK AURKUNTOKO DITUZU  
GURE BURDINGIAN: INDUSTRIA, ELEKTUZITATEA, MARGOLARITZA, ETXEA,  
ITURGINTZA, BIKOLAJEA ETA ABARREKO TRESNERIA; HALA NOLA,  
TOFLUJUA, EPROMAMENDUA, SARRAILAK, GILTZAK, ETA ABAR...

**ZERBERREN**  
**"ZER BER ETA HURAXE"**

NAGUSIA, 39 • 20720 AZKOITIA • 938 35 81 25  
[www.femeteriazerber.com](http://www.femeteriazerber.com)

**floreaga**  
SALESTAR IKASTETXEA

**FAMILIAK ETA IKASTETXEA, BAT EGINDA HEZTEN**

*"PKasleak zoriontsu izatearen giltza konfiantzan dago"*

**2023/2024 IKASTURTEA**

**KURRUMETARIBULAZIOA OTSAILAREN 13Tik 24ra**

**salestarrak**  
Florea Salbidea  
Inon: 943 85 30 43  
[www.floreaga.eus](http://www.floreaga.eus)  
[floreaga@floreaga.eus](mailto:floreaga@floreaga.eus)



Urtarrileko Maxixatzen aldizkarian **Zakelmari** non ezkatuta zegoen asmatu behar zen: 37. orrialdean zegoen ezkatuta. Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Iñigo Etxaniz** bazkideari egokitu zaio Ogi Berri okindegiaren **zortzi lagunentzako tarta** eta haren gertuko batek jaso du saria. Datorren hilean, Herrixen elkartearen 50 euroko txekia zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna otsailaren 17a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo [erredakzioa@maxixatzen.eus](mailto:erredakzioa@maxixatzen.eus) helbide elektronikora.

### ANBULATORIOAREN ONDOAN

**KAFETEGI HANDIA DUGU:** urtebetetze-ospakizunak, gosariak, meriendak, errazioak, pintxo potea asteazkenetan, txokolata txurroekin eta terraza zabala.

**ESKAINITZA ZABALA:** ogiak, opilak, gozoak, etab.

JAUSORO AUZUNEA, 5 behe • 20720 AZKOITIA • tel. 943-08 34 54  
FACEBOOKa OGI BERRI AZKOITIA GOXO GOXO





# Maitasunaz eta abar



KARI ALBERDI

**E**ta abar" aterkiaren azpian gauza gehiegi sartzen direlakoan nago. Maitasuna aipatzean ateratzen diren iritzi kopurua baina gehiago, agian. Maitasunaz, maitasunez, maitasunarekin, maitasunagatik, maitasunarentzako. Hitz gutxi eta ekintza askokoa izan behar duela diote batzuek, txorakeri asko eta zentzu gutxikoa dela ziurtatzen dute, berriz, beste batzuek. Otsailean eguzkia hamalagarrenez ateratzean protagonista eta hamabosgarrenean pertsonaia antagonista. Buruko ileetatik hanketako behatzetaraino egin ohi du lasterka eta Instagrameko irudien oinetan izaten du sarritan helmuga. Mugagabea, amaigabea, izengabea... nahiz eta aurreko zerrendara "arrazoigabea" gehitzeko motiboak ditugula irudit, sabeleko tximeletek ausaz hegan egiten dutela pentsatu edo amodioa azaldu ezinezkoa dela errepikatu, bada maitasuna deituriko txotxongiloaren hariak mugitzen dituzten hainbat elementu.

Lehendabizikoa, oxitozina, amodioaren hormona moduan da ezaguna, oro har. Neurotransmisore hori 1953an aurkitu zuten, sexu eta afektuarekin berehala lotuz. Izan ere, giza organismoak

orgasmoaren eta erditzeko unearen ondoren jariatzen du hori, bere funtzioa estimulatzaileria izanik eta aldamenekoarekiko harremanak estutuz. Horregatik, dagoeneko egonkortu den eta denboran dirauten erlazioetan sortutako atxikimenduaren erantzulea da hormona hori. Oxitozinaren areagotzeak, gainera, lasaitasun eta segurtasun sentimenduak eragiten ditu. Biak, maitasunaren oinarri.

Oxitozina ez da, ordea, maitasunarekin lotzen den elementu bakarra, nahiz eta bera izan protagonista pelikula erromantiko honetan. Bigarren planoan gelditu ohi den, baina zeresana duen beste neurotransmisoretako bat dopamina da. Horrek barne-burmuinaren aktibitatea sustatzen du, eta poztasun handi batekin erlazonatzen da, bikote hasiberri batek elkarri begietara begiratzean

**BADIRA MAITASUNA  
DEITURIKO  
TXOTXONGILOAREN  
HARIAK MUGITZEN  
DITUZTEN ELEMENTUAK**

sentitzen duten poztasun handi batekin. Gainera, maitemin sendo eta sakon batek irauten duen bitartean gorputzeko dopaminaren presentziaren indarra handitu egiten da.

Sentimendu mazedonia edo hormona koktel honetako hirugarrenak, eta gaurkoz azkenak, estrogenoak eta testosterona dira. Nerabezaroan izaten dute biak beraie agerraldia eta etapa horretan ematen diren aldaketa fisiko askoren arduradunak dira: ahots aldaketak, hilekoa, aknea... Desioarekin ere badute harreman zuzena, izan ere, horien mailak igotzen hasten direnean libidoa ere pixkanaka-pixkanaka handituz doa.

Zeruko Valentinentzat eta lurreko beste hainbeste sasiValentinentzako berri txarrak dirudite gorako horiek guztiak, dibinitateetatik urruti eta zientziatik gertu aurkitzen baitira bai maitasuna eta bai beste "eta abar" guztiak. "Eta abar" aterkiaren azpian gauza guztiak sartzen baitira gaurkoan. Maitasuna aipatzean ateratzen diren arrazoi kopurua baina gehiago seguru. Oxitozinaz, dopaminez, estrogenoarekin, testosteronagatik, maitasunarentzako. ■

# Lana, pasioz bizita

## AMAIA ELIAS BARNE DISEINATZAILEA

Amaia Eliasek barne diseinuko estudio batean lanean ari zela ezagutu zuen Marie Kondo antolatzaile, enpresaburu eta idazle ezagunaren metodologia. Berarengan izan zuen eraginaz ohartuta eta proiektu berritzaileagoak egitea amets zuela, estudio propioa irekitzeko pausoa eman zuen 2019an.

Testua: **Saioa Murua**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**. Argazkiak: **Amaia Elias**.

**B**arne diseinatzailea da Amaia Elias (Azkoitia, 1990). Duela 11 urte, lan kontuak tarteko, Azkoitia utzi eta Zarautzera joan zen bizitzera. Garai hartan, Barne Diseinuko ikasketak amaitu berri zituen gazteak, eta Billabonako estudio batean aritzen zen lanean. Han gustura sentitzen zen arren, "haratago" zihoazen proiektuak egin nahi zituen azkoitiarrak, eta beraz, bere kabuz lanean hastea erabaki zuen. Bada, gainera, barne diseinatzaileak erreferentetzat duen eta bere lanean eragina izan duen antolatzaile bat: Marie Kondo. "Eragin handia eta positiboa izan zuen Marie Kondok nigan. Ziur nengoen hark esaten zuena edonorentzat izan zitekeela baliagarria, eta ondorioz, nire lanaren ardatzetako bat da antolatzaile japoniarraren teknika. Bezeroak, nigana jotzen dutenean, beren bizitzako garai garrantzitsu batean aurkitzen dira, eta zerotik hastear den etapa da Marie Kondoren metodologia ezartzeko unerik onena, ohitura zaharrak ahazteko eta berriak eraikitzeko une egokiena baita".

Kondo oso ezaguna da txukuntasunari dagokionez, eta Elias haren jarraitzaile izanik, jendeak bera ere "zuzentasunarekin" lotzen du: "Jendeak uste du oso pertsona txukuna eta zuzena naizela, baina ez da horrela; bai, txukuna izaten ikasi dut, baina norbere egoerak eta etxeak izan ditzakeen mugek horretan eragin zuzena dute". Barne diseinatzaileak azaldu duenez, Kondoren metodologiaren inguruko iritziek edo zurrumurruek bezeroei nolabaiteko urduritasuna

sortu izan diote, eta sentimendu horrek behartu izan ditu arropa guztia botatzera. Eliasek dioenez, ordea, bere proiektuen funtsa norberak duenaren jakitun izatea da. "Nola bizi nahi duten da bezeroei egiten diedan lehen galdera, eta hortik abiatzen da guztia. Galdera hori erantzuteko eta zehazteko prozesuan, norberak daukanaz eta behar duenaz ohartaraztea izaten da abiapuntua".

Diseinatzaileak zeharo sinetsi zuen Marie Kondoren metodologian hasieratik, eta Londresera joatea erabaki zuen horretan sakontzeko asmoz. "Oso gustura" itzuli zen lau egun iraun zuen formakuntza hartatik; izan ere, teknikaz gehiago jakiteko ez ezik, metodologiak ahalduz izan dezakeen eragina gehiago aztertzeko baliagarria izan zitzaion. "Formakuntza hartan ulertu nuen norberaren ahalduzterako zeinen garrantzitsua den daukazunaz ohartzea, eta, batez ere, aurrera begira zer eduki nahi duzun jakitea. Norberaren erabakia da ezjakintasunean bizitzen jarraitzea edo dugunaren kontziente izatea".

Pertsonen bizitzako une garrantzitsuenetako batean hasten da Eliasek eta bere taldearen lana, berak adierazi duenez: "Etxe bat erostea gure bizitzako erabakirik garrantzitsuenetako bat izan ohi da, eta une horretan, bezeroaren bizitzan sartzeak haren bidelagun izatera bultzatzen zaitu hein batean". Lan desberdinetan murgiltzerako, eskaria aintzat hartuta, Eliasek bezeroarekin sortzen den harremanaren arabera erabakiak hartzen ditu. "Nigana jo orduko bilera bat proposatzen diet, eta bertan sortzen den harremana izan ohi da lehen filtroa. Izan ere,





halako proiektuetan bezeroak inplikazio handia izan behar du; guganako konfiantzarik lortzen ez badugu, proiektua ez da aurrera aterako". Era berean, diseinatzailearen esku hartzea "ahalik eta txikiena" izatearen aldekoa da azkoitiarra: "Askotan, etxe bat erosi eta barne diseinatzaile batengana jotzen dugu hark gure etxeak nolakoa izan behar duen esango digun esperantzarekin, baina horrek ez luke horrela izan behar, denok ez baikara berdin bizi. Horregatik, guk ez dugu horrela lan egiten".

Urtez urte ari da azkoitiarra ibilbide profesionala osatzen, eta atzera begira jarrita, barne dekoratzaile gisa hasitako proiektua "bakarrik" sortu zuela aipatu du. Hain zuzen, horrek hainbat zailtasun eragin zizkiola adierazi du, bezeroek maiz ez baitzuten azkoitiarra lantokian aurkitzen: "Jendearekin egotea behar dut, eta haiek laguntzat har nazaten ere bai. Hori dela eta, nire estudioa jo eta inoiz ez nindutela aurkitzen entzuteak frustrazio handia sorrarazten zidan". Dena den, bere amets profesional gehientsuenak egia bilakatzea lortu duela adierazi du. "Benetan gustatzen zait egiten dudana eta pasioz bizi ohi dut proiektu bakoitza; bidaiatzen dudanean ere ez dut deskonektatzen". Madriletik zein Bartzelonatik iritsi zaizkio lan egiteko eskaerak, baina uko egin izan die horiei, "etxe inguruan" jardutea duelako gustukoen. "Bezeroekin oso estu lan egitea behar



dut, eta horregatik, etxekoengandik gertu egotea oso garrantzitsua da niretzat". Era berean, badu oraindik desioaren bat: "Nire ametsetako bat da aurrekonturik gabeko etxe handi bat diseinatzeko aukera izatea, filmetan eta aldizkarietan ikusten diren luxuzko etxe horietako bat".

### Dena alderantziz

Eliasek 2019an ireki zuen bere estudioa, eta handik gutxira, mundua geratu zuen COVID-19ak. Mundua gelditu egin bazen ere, azkoitiarrak dio berak are gehiago mugitu behar izan zuela. "Pandemiak bete-betean harrapatu ninduen, baina sare sozialak nire lanaren erakusleho bihurtu ziren, eta lanean gelditu ere egin gabe jardutea lortu nuen". Horrez gain, azken hilabeteetan izurriak zein materialen prezioen gorakadak eskaeren epeetan eragina izan dutela adierazi du.

## Amaia Elias

- **Adina:** 32 urte.
- **Lanbidea:** Barne diseinatzailea.
- **Barne diseinatzailea ez banintz...** Loradenda bat izatea gustatuko litzaidake nahiz eta desastre hutsa naizen horretan.
- **Amets bat:** Amatasuna nire lanak eskatzen duen inplikazio guztiarekin uztartzeko gai izatea.





Zentzu horretan, "garai gogorrak" bizi izan dituela esan du: "Oso zaila egiten zait bere bizitzako proiektuaren zain dagoen pertsonari lanen epeetan edo aurrekontuan aldaketak egon direla adierazi behar izatea, batez ere bezeroak, une batez, arriskuan ikus baitezake berarentzat hain garrantzitsua den proiektua".

Sare sozialetan oso aktiboa da Elias, baina horretan izaten du laguntza: Ariane Aldalur

azkoitiarrak kudeatzen dizkio horietan dituen kontuak. Barne diseinatzailea naturaltasun handiz agertu ohi da sareetan, baina, hain zuzen, hark dioenez, horixe da gaizkien eramaten duen arloa: "Asko kostatzen zait sareetarako neure burua grabatzea, oso lotsatia bainaiz. 'Egin eta kito', pentsatzen dut, eta naturaltasun hori da bezeroei eta jarraitzaileei gehien gustatzen zaiena". ■

**Xabier Munibe  
ikastola  
zurea, gurea,  
guztiona!  
Zatoz!**

**Matrikulazio epea**  
Otsailaren 13tik 24ra  
**Ate irekiak**  
Otsailaren 11an





**Letter-Food Matching Legend:**

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | B | C | D | E | F | G | H | I | J |
| K | L | M | N | O | P | Q | R | S | T |
| U | V | W | X | Y | Z | 1 | 2 | 3 | 4 |

**Zeeer?! Jarri irudiña bakoitzari dagokien hizkia eta abesti ezagun baten zatia agertuko zaizu.**


## DOMINOAN

Dakizunez, ilargiak zirkulak osatzen ditu, eta horren arabera aldatzen zaie forma. Lurretik begiratuta, Oso ezazu dominoa, forma edo fase horiek kontuan hartuta.



## HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordene itzazu izar uxak handienari 1, hurrenari 2 eta txikienera 8 zenbakia emanaz.







## ILGORAKO SUDOKUA

Osa ezazu sudokua, ILGORA osatzen duten hizkiekin (I, L, G, O, R eta A). Hizki bakoitzak behin agertu behar du lehen, zutabe eta araz bakoitzeko.


## HAMAika IKUSTEKO JAIOAK

Aurki itzazu bi irudi hauek artean dauden aldeak. 11 dira guztira.



## Itzala

Lotu astronauta bakoitzari bere itzala.



Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)

# "Jendeak aurreiritzi oker asko ditu Gizakia Helbururen inguruan"

**ALAITZ ARTOLA** GIZAKIA HELBURUREN LASAOKO ZENTROKO TERAPEUTA

Gizakia Helburu 1984an sortu zuten heroinarekiko menpekotasuna zuten herritarrei laguntzeko, baina, ordutik, asko aldatu da gizartea, eta gizartea aldatzen joan den heinean aldatu da Gizakia Helburu ere. Gaur egun, askotariko menpekotasunetatik askatzen eta birgizarteratzen laguntzen diete herritarrei. Testua eta argazkiak: **Aitziber Arzallus eta Ihintza Elustondo.**

**G**izakia Helbururen Lasaoko (Azpeitia) egoitzako terapeuta da Alaitz Artola (Azkoitia, 1994). Askotariko mendekotasunak dituzten herritarrekin eskuz esku jarduten du lanean, haiei birgizarteratzeko bidean laguntzen. Zeregin gogorra dela onartu arren, oso aberasgarria ere badela dio azkoitiarrak; beretik asko ematen duela, baina baita asko jaso ere.

## **Zer ikasi zenuen?**

Batxilergoa bukatu eta gero, Psikologia ikasi nuen, Donostian. Hori eta gero, Bikote eta Familia Terapian masterra egin nuen, eta orain, Osasun Psikologia Orokorreko masterra egiten ari naiz, titulu hori eskatzen baitute lanpostu gehienetarako.

## **Garbi al zeneukan zer ikasi behar zenuen?**

Batere ez. Batxilergoa egiten hasi nintzenean, ez nekien zer ikasi nahi nuen. Etxean lanbide heziketara joateko esaten zidaten arren, nik ez nuen garbi ikusten; baina zer unibertsitate ikasketa egin pentsatzen jarrita ere, ez nekien. Nekiena zen jendearekin lan egin nahi nuela; ez nintzen ikusten egun guztian ordenagailuaren

aurrean, ezta zortzi orduz piezak egiten ere. Hango eta hemengo ate irekietara joan eta gero, Psikologia ikastea erabaki nuen. Jendearekin hartu-emana beti gustatu izan zait eta psikologiak ematen du jendeari laguntzeko aukera hori.

## **Nola ekin zenion lan ibilbideari?**

Psikologia ikasten ari nintzenean, Izan Fundazioaren Norbera programan egin nuen praktikaldia, Donostian. Arazo sozialak, familiarak, ikasketetakoak, pertsonalak eta abar dituzten nerabeei eta haien familiei zuzendutako programa bat da Norbera. Praktikaldia bukatu eta urtebetera edo, ordezkapen bat egitea eskaini zidaten, eta horrelaxe hasi nintzen. Norberakoa bukatu zitzaidanean, fundazio berarena den Gizakia Helburu proiektuan lan egiteko aukera sortu zitzaidan, Hernaniko zentroko Eraiki programan. Harrezkero, atez ate ibili naiz, baina beti Izan Fundazioaren barruan, Gizakia Helburun eta Norberan, eta, gaur egun, Lasaoko zentroan ari naiz lanean; urtebete inguru daramat han.

## **Zehazki, zein da zure lana?**

Beti terapeuta gisa aritu izan naiz; hortaz, Donostian eta Hernanin egiten nuen lana zein





Lasaon egiten dudana antzerakoak dira. Terapia indibiduala egiten dugu, norbanakoekin; terapia familiarra, norbanako horrekin gehi bere familiarekin –bikotekidea, anai-arrebak, gurasoak...–; eta talde terapia ere egiten dugu. Jendearen profila da zentro edo programa batetik bestera aldatzen dena.

### **Zein profiletako herritarrekin aritzen zara zu?**

Gizakia Helburun laguntza behar duten herritar guztiei egiten diegu harrera. Programaren barruan bost lerro nagusi daude, eta norbanako bakoitza, dituen beharren eta ezaugarrien arabera, batera edo bestera bideratzen dugu. Lerro horietako bakoitzak hainbat fase izaten ditu: harrera, komunitatea eta birgizarteratzea. Nik, zehazki, lerro tradizionaleko komunitateko fasean lan egiten dut, Lasaon. Han dauden herritarren profilari dagokionez, ezaugarri adierazgarrienak izango lirate zaugarritasuna, kontsumo historia edo ibilbide luzea dutela eta inguruan galera handia bizi izan dutela. Mendekotasunari dagokionez, berriz, era askotakoak izan ditzakete: drogekikoa, alkoholarekikoa, jokoarekikoa... Eta izan ditzakete jakabide arazoak ere, erosteko joera konpulsiboa eta abar.

### **Beraz, edozein eratako mendekotasunetatik askatzeko gunea da Gizakia Helburu?**

Gaur egun, bai. Egia da proiektua martxan jarri zutenean, 1984an, drogekiko mendekotasuna zutenak artatzeko izan zela; orduan dena zen heroina. Gizarteak aldatzea joan den heinean, ordea, Gizakia Helburua ere aldatzen joan da. Harrigarria da zenbat gaztek dituzten jokoarekin, alkoholarekin, botikekin eta teknologiarekin arazoak.

### **Zer-nolako jendeak jotzen du Gizakia Helburura?**

Denetariko jendea etortzen da, baina egia da oraindik ere gehienak gizonak direla, eta hori ez da emakumeek ez dutelako mendekotasunik garatzen, gizartean estigma handia egoten jarraitzen duelako baizik. Emakume gehien alkoholarekin arazoak dituzten herritarrei zuzendutako programan dago, baina, oro har, gure lantokian eta gure programetan ikusten duguna ez dator bat gizarteko benetako egoerarekin. Mendekotasunak gizartearen parte dira, eta izan gizon izan emakume, mendekotasunak edozeinek garatu ditzake.

### **Mendekotasun denak modu berean artatu al daitezke?**

Bakoitzak bere berezitasunak ditu, baina, adibidez, talde terapietan, era askotako mendekotasunak dituztenak elkartzen dira. Izan

ere, alkoholak gauza bat ematen dizu, kokainak beste bat... baina oinarrian dagoen arazoa antzerakoa izan ohi da. Gainera, kasu gehienetan, zerekiko menpekotasunak adinako garrantzia izaten du kanpoan duten babesak. Ingurua erabat galduta datozenek lanketa handia egin behar izaten dute birgizarteratzeko; inguruan horrenbesteko kalterik egin ez dutenek, aldiz, baliabide gehiago izaten dituzte.

### **Zer ematen diezue laguntza eske doazkizuenei?**

Hasteko, entzun egiten diegu, jakiteko zerk lagunduko liekeen eta zer beharko luketen beren burua beste modu batera kokatzeko berriz beren lekura bueltatzen direnean. Gure zeregina da ibilbide horretan laguntzea eta akonpainatzea. Prozesu horretan, garrantzi handia du egonkortasuna izateak, errutina bat izateak, eta hasteko, hori ematen diegu. Gero, hezkuntza prozesu baten eta prozesu terapeutiko baten bitartez, baliabideak ematen dizkiegu emozioak eta harremanak beste modu batera kudeatzen ikasteko, eta saiatzen gara beren buruarekiko eta inguruarekiko ardurak har ditzaten ere, ikas dezaten gauzak ezin dituztela egin nahi dituzten bezala, horixe izan delako lehen ere galerak eragin dizkiena.

### **Uste duzu jendeak aurreiritzi okerrak dituela Gizakia Helbururen inguruan?**

Bai, aurreiritzi oker asko, gainera. Oro har, jendeak uste du oso leku itxia dela, gizonentzakoa, eta drogekiko mendekotasun larria dutenek bakarrik jotzen dutela hara; baina dagoeneko hori ez da horrela. Gizakia Helburu da gabezia jakin batzuk dituen jendea ahalduentzeko espazio bat eta era askotako arazoak dituen herritarrei laguntzeko gune bat. Uste dut Gizakia Helbururen erronketako bat izan behar lukeela hori gizarteratzea, aurreiritziak hausten joateko, horiek zaildu egiten baitute jendeak bertara laguntza eske jotzea.

### **Gustukoa al duzu zure lana?**

Derrigor gustatu behar, hango egunerokotasunari eta tentsio guztiari aurre egiteko. Hasieran, lanean bizitzen nituen egoerek asko eragiten zidaten, baina denborarekin ikasi egin dut lanekoak lantokian uzten, nahiz eta beti ez den erraza egiten, oso jende zaugarriarekin jarduten baikara. Hala ere, miresgarria iruditzen zait gudan jartzen duten konfiantza, nola partekatzen duten barruan daukaten guztia; hori ikaragarri eskertzen diet. Gainera, oso ederra izaten da ikustea pertsona bat nola iristen den gupana, zer-nolako



Gizakia Helbururen Lasaoko egoitza.

**"MENDEKOTASUNAK GIZARTEAREN PARTE DIRA, ETA EMAKUME ZEIN GIZON, EDOZEINEK GARATU DITZAKE"**

**"ZEREKIKO MENPEKOTASUNAK ADINAKO GARRANTZIA IZATEN DU KANPOAN DUTEN BABESAK"**

**"MIRESGARRIA IRUDITZEN ZAIT NOLA PARTEKATZEN DUTEN BARRUAN DAUKATEN GUZTIA"**

bilakaera izaten duen eta nola joaten den. Baina politetik duena zailetik ere badu gure lanak. Harreman oso intentsuak garatzen ditugu jendearekin, zeu ere asko azaltzen zara, eta askotan zaila izaten da muga non dagoen jakitea. ■■■






Ate irekietan izena emateko:



**2023-2024 ikasturtea**

Matrikulazio epea: otsailaren 13tik 24ra

**Etorri gu ezagutzera!**

**azpeitiko ikastola**  
ikaiberri koop.s.

Loiolako Inazio hiribidea 26 • 20730 Azpeitia  
Tel.: 943 15 12 46 • [ikaiberri@azpeitikoikastola.eus](mailto:ikaiberri@azpeitikoikastola.eus)  
[www.azpeitikoikastola.eus](http://www.azpeitikoikastola.eus)



# "Egia historikoa ikertzeak pizten du grina nigan"

**IONE ZULOAGA** ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO IKERLARIA

Ione Zuloagak Aranzadi zientzia elkartean egiten du lan. Historia garaikidea, eta zehazki, gerra eta diktadura frankista garaia dira bere ikerketa lerroak, eta lanketa horietan dabil murgilduta. Gipuzkoan errepresioa eta giza eskubideen urraketak jasan zituzten emakumeei buruzko doktoretza ari da egiten.

Testua: **Andoni Elduaen**. Argazkiak: **utzitakoak**.

**A**ranzadi zientzia elkarteko ikerlaria da Ione Zuloaga (Azkoitia, 1995). Errekatik hartzen zituen harriek, fosilek eta mineralak ezkutatzen zutena ezagutzeko jakin-minak bultzatuta hasi zen Historia gradua ikasten Gasteizen. Arangurengo (Nafarroa) Irulegiko gaztelua industen aritu da Zuloaga, eta egun, Zestoako eta Zegamako memoria historikoari buruzko ikerketak ari da lantzen.

## **Historialaria izatea erabaki zenuen. Zergatik?**

Txikitatik gustatu izan zait harriak biltzea; jasota ditudan lehenak gure ibaikoak dira, Urolakoak. Gurasoeekin egiten nituen ibilaldietan fosil ezberdinak, mineralak eta niri deigarriak egiten zitzaizkidan harriak biltzen hasi nintzen. Harriek zer ezkutatzen zuten jakin nahi nuen, eta neure istorioak ere sortzen nituen haiek nondik zetozen pentsatuta. Toki ezberdinetako txanponak eta billeteak ere gordeta ditut, izugarri gustatzen zaizkit eta. 14 urte inguru nituela, irakasle batek zer gustatzen zitzaidan galdetu zidan eskolan, eta harriak eta fosilak gustatzen zitzaizkidalara erantzun nion. Irakasleak arkeologoa izan

beharko nuela esan zidan. Ez nekien garai hartan arkeologo baten egitekoa zein zen, baina irakasleak azaldu zidanean, ziurrenik etorkizunean izan nahi nuena hori zela ikusi nuen. Egiptologiak ere asko erakartzen ninduen, eta horregatik, geroz eta argiago nuen Arkeologia edo Historia gradua ikasi nahi nuela.

Batxilergoaren bigarren urtearekin batera, ordea, zalantza pila bat sortu zitzaidan; kontua ez nuen uste bezain argi. Atzerrira joan nahi nuen ikastera, eta une batez, Kazetaritza gradua ikastekotan ere egon nintzen. Dena den, Historiako gradua Gasteizen ikastea erabaki nuen. Aukera ona egin nuela esan dezaket; ikasitako arloan lan egiteaz gain, hiriak inguru oso ederra eman dit.

## **Aranzadi zientzia elkarteko kidea zara. Nola sortu zitzaizun hara batzeko aukera?**

Unibertsitateko lehen urtean, gaur egun oso lagun ona dudana Manex Arrastoak esan zigun uda hartan Aranzadik 1936ko gerrako indusketak egin behar zituela Adunan, Asteasun eta Zizurkilen [Gipuzkoa]. Izugarri gustatzen zitzaidan arkeologia irakasgaia, baina hori bakarrik ez; gerran eta diktadura garaian gertatu zena lehen pertsona ezagutu nahi nuen. Ordurako gaiaz





irakurrita nengoen eta pixka bat ikertuta nuen, baina horretaz hitz egiten nuen aldiro jendearengan isiltasuna eta deserosotasuna nabaritzen nituen. Beldurragatik? Edo gaiaz hitz egiteak zenbaiti mina sortzen ziolako? Bost urtez nire ikerketa gaia izan denez, gaur egun baditut galdera horientzako erantzunak. Gainera, garai hartan mundu berri bat ireki zitzaidan; izan ere, Adunan, Asteasun eta Zizurkilen egindako indusketek gero Amaiurren, Irulegin eta Auritzen indusketak egiteko bidea ireki zidaten. Poliki-poliki, udaro, metodo zientifikoan geroz eta formakuntza handiagoa hartzen joan naiz. Hori ez zen posible izango Juantxo Agirre Aranzadiko idazkari nagusiak elkartearen etorkizuna gazteongan ikusi izan ez balu.

#### **Zein dira Aranzadin dituzun eginkizun nagusiak?**

Memoria historikoaren taldearekin egiten dut lan. Herrika askotariko proiektuak ari gara egiten, memoria historikoan (1936-1959) eta gertuko memorian (1959. urtetik gaur egunera) izandako errepresioa eta giza eskubideen urraketak ikertuz. Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta beste zenbait erakunde publikorekin elkarlanean ari gara, iraganeko egia historikoa argitzeko. Gaur-gaurko, Zestoako eta Zegamako memoria historikoari buruzko ikerketak ditut esku artean.

#### **Arangurengo (Nafarroa) Irulegi mendiko indusketetan ere aritu zara lanean, ezta?**

2017ko udan hasi nintzen Irulegiko indusketetan parte hartzen. Garai hartan, gazteluan aritu ginen industen; ni ez naiz *Irulegiko eskua* agertu den aztarnategia industen aritu. Aurrez indusketa horretan aritutako zenbait lagunek aurkezpenean egoteko aukera izan genuen, eta plazer hutsa izan zen halako momentu historiko baten lekuko izatea. Eskerrak eman nahi nizkieke talde horretako zuzendari eta koordinatzaile Mattin Aiestarani eta Leire Malkorrari zein taldea osatzen duten boluntario guztiei, baita komunikazio lantaldeari ere. Metodo zientifikoaren bidez urtez urte egin duten lan finari esker izan ez balitz, oso zaila izango zatekeen halako aurkikuntza horren egoera onean ateratzea. Taldean egindako lanaren emaitza bikaina izan da, eta hori da, finean, Aranzadiren oinarri nagusietako bat.

#### **Zein da egun eskuartean duzun proiektu nagusia?**

Aranzadin proiektu bat baino gehiago ditut zabalik, eta guztiekin nabil tematuta; ingurukoek badute horren berri, onerako edo txarrerako. Bitartean, 1936-1945 urteen artean Gipuzkoan errepresioa eta giza eskubideen urraketak jasan

zituzten emakumeei buruzko doktoretza ari naiz egiten EHUn.

#### **Zerk sortzen du zugan historia ikertzeko grina?**

Historia garaikidea da nire ikerketa lerroa; zehazki, gerra eta diktadura frankistaren garaia. Orduko zenbait gertakizun historikok oraindik ere isilean jarraitzen dute. Isiltasun hori hausteak eta egia historikoa ikertzeak pizten du grina nigan. Era berean, gazteen zein helduekin jarduten dut lanean. Artxiboko lanarekin batera, asko gustatzen zait helduei elkarriketak egitea; izan ere, askok urte luzeen ostean isiltasuna hausten dute. Emozio handiko uneak izan ohi dira horiek, negarrak eta urduritasunak tarteko, elkarriketatzen ditudan guztiek zerbait berria erakusten baitidate. Pertsona horiek guztiek pasatu dituztenak pasatuta, aurrera egiteko indarra eman eta egia historikoa jakiteko dagoen beharra aldarrikatzen didate. Gaur egun indusketetan gutxiago parte hartzen dudan arren, hori da gustatzen zaidan beste jardueretako bat. Urte hauetan egindako lagunekin egoteko aukera ere izaten dut indusketetan, eta horregatik, egun horiek oso bereziak izaten dira.

Bestalde, Aldundiaren Kultura Eskola programan parte hartzen ere ari gara, *Memoria Historikoa Orainalditik* ikastaroarekin. Gazteak ikerlari bihurtzen dira ikastaroan, eta, besteak beste, ikerlariok egiten dugun lana egiten dute dokumentazio historikoa baliatuta. Bi urte daramatzagu ikastaroarekin, eta emaitzak oso positiboak ari dira izaten. Era berean, Aranzadiko historialarion helburu nagusienetako bat da gure ikerketak ezagutaraztea, iragana ezagututa egungo gazteak gertatu zenaz jabetzeko. Izan ere, modu horretan etorkizun hobea eraikitzeko erremintak lortu ahal dituztela ulertzen dugu.

#### **Zer eskatzen du zure lanak?**

Ahalik eta objektibotasun handiena izatea, eta horretarako, metodo zientifikoa erabiltzen dugu. Gure helburua da garaiko historia ahalik eta osoena jakitea. Horretarako, iturri ezberdinen beharra dugu, iturri idatziena zein ikus-entzunezkoena. Historialariok irakurtzen duguna interpretatzen eta idazten dugu, baina interpretazio horrek ahalik eta objektiboena izan behar du. Ezin dugu asmatu dokumentuek edo ikus-entzunezkoek esaten ez dutena. Zuhurrak izan behar dugu.

#### **Sarritan aipatu duzu metodo zientifikoaren kontzeptua.**

Historialariok metodo zientifikoa erabiltzen dugu historiako gertakizunak aztertzeko. Horretarako,



Zuloaga Bilboko Burdin Hesian, Larrabetzu parean.

**"GERRAN ETA DIKTADURA GARAIAN  
GERTATU ZENA LEHEN PERTSONAN  
EZAGUTU NAHI NUEN"**

**"ZESTOAKO ETA ZEGAMAKO  
MEMORIA HISTORIKOKO IKERKETAK  
DITUT ESKU ARTEAN"**

**"INGURUKO HISTORIA AZTERTZEA  
EDO IKASTEA ERAKARGARRIAGOA  
DA GUZTIONTZAT"**

lehen eta bigarren mailako iturrietara jotzen dugu, eta iturri horiek egiaztatzen ditugu. Oro har, lehen mailako iturriak ikertzen ditugu, oraindik ere interpretaziorik jaso ez dutenak baitira, hala nola udaletako artxiboak, Espainiako estatuko artxiboak eta nazioartekoak. Gertakizunak lehen edo bigarren pertsonan bizi izan zituzten pertsonengana ere jotzen dugu, horiek maiz dokumentazioan agertzen ez dena adierazten baitute. Beraz, metodologia zientifikoa da iturri ezberdinetatik datozen informazioa zuhurtziaz aztertzea eta hura egiaztatzea. Geroz eta iturri anitzago, metodologia zientifikoak emandako emaitzak are zuhurragoak izango dira. Ezinbestekoa da iturrietatik lortutako informazioa haren testuinguru historikoa kontuan hartuta analizatzea.

**Zein da zuretzat historian egin den aurkikuntzarik handiena edo garrantzitsuena?**

Historiaren prozesua bera da ezinbestekoa. Historiako pasarte guztiak garrantzitsuak dira, aztertuz gero, egungo mundua hobeto ulertzen laguntzen digute-eta horiek. Bat esatearren, ordea, *Irulegiko eskua* aukeratuko nuke.

**Ba al duzu buruan era batera edo bestera aurkitu nahiko zenukeen ezer?**

Historialariok historia asko dugu argitara ateratzeko oraindik. Hori da dugun helburua, eta historiako pasarte guztiak benetan nolakoak izan diren jakiterik izango ez badugu ere, ahalik eta historia osoena egitea da egokiena.

**Historiako edo Historiaurreko garai bat aukeratzekotan, interesgarriena zein dela esango zenuke?**

XX. mende osoa hautatuko nuke, hori baita erakargarrien iruditzen zaidan garaia. Sasoi horretan asko dago oraindik ikertzeko, ezagutzen ez ditugun gertakizun historiko dezente baitaude. **Gustatuko al litzaizuke herrira begira ikerketaren bat gauzatzea?**

Bai, nola ez. Inguruko historia aztertzea edo ikastea erakargarriagoa da guztiontzat.

**Zure zaletasunetan murgilduta, zer gustatzen zaizu egitea denbora librean?**

Askok gustatzen zait irakurtzea, beste mundu batera eramaten nau eta. Batik bat, polizia nobelak ditut gustuko, baita liburu historikoak eta didaktikoak ere. Bestelakoan, musikazalea naiz. Liburu on bat, Brasilgo musika herrikoia eta itsasoari begira egotea, hori da ederrena. Musika zuzenean bada, gainera, hobe. Lagunekin eta familiarekin egotea ere asko gustatzen zait. ■■■



# Itsasontzien arkitektoa

Joakin Sudupek (Azkoitia, 1962) duela hilabete gutxi hartu du kazetaritza munduan erretiroa, eta orain libre dituen tarte guztiak baliatzen ditu itsasontzien egurrezko maketak egiteko. Duela sei edo zazpi urte hasi zen lehen maketa eraikitzen, eta dagoeneko hiru ditu eginda. Egun, laugarren proiektua du esku artean. Testuak eta argazkiak: **Andoni Elduaen**.



### Eskulana egiteko beharrari tiraka

Duela urte batzuk, Sudupe Azpeitira joaten zen astean birritan zizelkatzera. "Nahi adina bete ez ninduen arren, eskulanerako gogo nuela ohartu nintzen, nolabait eskuarekin zerbait egiteko beharra nuela". Behar horri erantzuna eman nahian murgildu zen Sudupe egurrezko maketen munduan. "Maketa bat egin nahi nuela eta, halako lan bat egiteko zer aukera zeuden begiratu nuen. Motoak, autoak, etxeak, diaporamak, itsasontziak... Aukera handia zegoela ikusi nuen, baina itsasontziak gustuko ditudanez, horiekin hastea erabaki nuen".



### Lehena, *Jolie Brise* itsasontziarena

2017. urtean hasi zen itsasoentzien maketak egiten, eta lehena *Jolie Brise* izeneko itsasontziarena izan zen. 1913. urteko *cutter* erako belaontzia da *Jolie Brise*, eta azkoitiarrak 1:50 eskalan egin zuen. Egun, etxeko egongelan du maketa jarrita, beira arasa baten barruan. Lehen itsasontziaren proiektua gauzatzeko, askotariko materialak biltzen zituen kit bat erosi zuen Sudupek. Ondoren amaitu dituen beste bi proiektuak ere kit-ak erosita gauzatu ditu hark.



### Materiala, ezinbestekoa

Batzuetan kit-ak dakarren materiala erabili ohi du Sudupek itsasontziak egiteko, eta besteetan, berak erosten du daukan beharraren arabera. Zerra txiki batekin hasi zen lehen itsasontziaren maketa egiten, baina aitortu duenez, poliki-poliki "gero eta material gehiago" eskatu dio horrelako lan bat egiteak. Broka txikiak, lekeda mota desberdinak, egur txikiak, listoiak, pintura... "Material asko eskatzen du halako proiektu batek", azaldu du Sudupek. Haren trastelekuko lan mahaia ikusi besterik ez dago horretaz jabetzeko.



### **Arrantzontzi bat, bigarrena**

Azkoitiarrak egin zuen bigarren maketa *Le Fe'camp* itsasontziarena izan zen. Duela 30 bat urte-edo Dikar enpresak Bergaran (Gipuzkoa) egindako maketa bat da hark egindako bigarren lana. Sudupek adierazi duenez, maketa hura lagun baten garajea egon zen hogei bat urtez, eta hark emanda erabaki zuen berak egitea. Hain justu, XIX. mendeko Ipar Euskal Herriko arrantzontzia da *Le Fe'camp*, eta 1:62 eskalan egindako proiektua da.

Sdupek, dena den, zehaztapen bat egin nahi izan du: berak egindakoak modelismo estatikoan egindako proiektuak dira, hau da, kanpora begirako lanak. "Nik egindako itsasontziak ur gainean jarritz gero, hondoratu egingo lirateke", azaldu du.



### **Ideia, paperetik mahaira**

Sdupek, bereziki, neguan egiten ditu proiektuak etxeko trastelekuan. "Eguraldi txarra edo etxean egoteko giroa egiten duenetan gauzatzen ditut lanok", dio hark. Lana egiteko, materialak bezainbesteko garrantzia dute planoek, eta Sudupek arbel bat du trastelekuan jarrita. Haren gainean ezarri ohi ditu itsasontzia osatzeko behar dituen planoen paperak.



### "Zerbait zailagoa, probatzeko"

Denboraren poderioz, lanari trikimailu guztiak hartu dizkio Sodupek. Hori horrela, *El terror* izeneko 1875eko galeoi ingelesaren maketa egin du eskulangileak, "orain arteko zailena". Bi itsasontzi desagertu egin ziren Groenlandiako bideak aurkitzera joan zirenean, tartean Suduperen maketakoa. Dena den, 2016. urtean aurkitu zituzten itsasontzi horren arrastoak, urpean. 1:75 eskalan egindako maketa da.

### Laugarrena, bidean

Sodupek hiru itsasontziren maketak ditu eginda, baina bidean du laugarrena ere: 1770eko Suediako kanoidun itsasontzia. Aurreko lanetan ez bezala, itsasontziaren maketa egiteko plana besterik ez du eskuratu; gainerako pieza guztiak Sodupek erositakoak eta ekoizitakoak dira. Itsasontziaren hezurdura egin du dagoeneko, eta orain, gainerako piezak hari lotzen ari da. Lana amaitutakoan, itsasontzietatik at, bestelako proiektu bat egingo duela azaldu: hegazkin bat egiteko ideia buruan du hark. ■■■



# Ez dira betiko...



IORITZ GONZALEZ

**H**ertzainakentzako kontzertua hastear. Emozioa, zirrara. Aspaldiko partez, gorputza hainbat sentimenduz josirik: gaztaroko bizipenak, parrandetan ezinbesteko ekarpena egin zuen talde baten emanaldia. Sentsazio polita, eta, ileurdin eta burusoil kopurua nabarmena izan arren, gazte sentitzen naiz, kulturaz eta parrandaz gozatuz, libre.

Gure belaunaldiko gazte asko musikaren bidez hasi ginen euskal kulturari murgiltzen, euskal kanta zaharrak kalean eta tabernetan entzunez nahiz abestuz. Jakina da kultura ez dela soilik eskolako kontua; liburuen kontua; zinemaren kontua. Karriketako kultura ere gure kulturaren parte da, "zabal bidea eta airea, gure hizkuntzak har dezan arnas...". Aspaldi esana da "kantatzen duen herria inoiz ez dela hilk". Egun ere, aldarri horrekin diharduenik bada.

"Jo ta ke, irabazi arte" kantatzen zuen belaunaldikoa izanik, euskal rocka kaleko iturritik egunero edan zuten haletakoa naiz. "Ikusi eta ikasi" egiten genuen, "ondo entzun, eta hobeto heldu". "Euskaraz eta kitto, zertarako da gehio!", aldarrikatzen genuen, edota Iñaki ikustean konturatzen ginen "ze urrun dagon Kamerun". "Kriston martxa zegoen sasoi ilun hoietan". Parrandan, "sarri-sarri, bafleetatik kriston martxa dabil!" abesten genuen, eta amaitzean, berriz zoriontsu izango ginela, "edozein herriko jaixetan...".

"Nola aldatzen diren gauzak, kamarada". Zoritzarrez, egun, "ezer ez da berdin". Zoritzarrez, egungo gazte gehienek, musika- eta kultura-gosea kamusteko nahiago dituzte eduki arrotzak. Gauean irten eta tabernetan entzuten denaz jabetzea besterik ez dago. Globalizazioak eta teknologia berriek gure hizkuntzan, eta, oro har, gizartean izan duten eragina jada nabarmena delakoan nago.

Internetek bizia aldatuko zigula esaten zigutenean ez genuen aurreikusten nola izan zitekeen. Horratx, konturatu orduko, gure bizian sartu zaigu: gure eguneroko bizimoduan, gure seme-alaben hezkuntzan, gure kaleetan, gure kulturari. "Hauze duk hauze, gure destinu petrala". Agian ez diogu eman zor zaion garrantzia: baliteke tresna modu horiekin ditugun zenbait joera eta ohiturek hausnarketa bat merezi izatea, baliteke tabernetan entzun dezakeguna geure esku egotea. Agian. Askotan pentsatu ohi dut gailuetan nagusitzen diren produktuen eta sortzaileen gero eta mendekoagoak garela. Zer iritzi izango ote du Gerard Pique futbolari ohiak gai horri buruz? Nik beti sinetsi izan dut guk txoria gurela maite.

Kontzertutik irtetean, errailetatik irten zitzaidan honako galdera hau bota nion nire bizikide eta bikotekideari: "Zer kontzertu eta talde ikusiko ote dituzte oraingo gazteek urte batzuk barru, gazte garaia gogoratzeko?". Agian, arrazoi izango zuten, "inun baino alaiagoa" izan arren, Euskadin rock-an-rollak ez duela inoiz dirurik emanen esaten zutenek. Azken finean, amets prefabrikatuetan bizi garen izaki hutsak gara. ■■■

**"ZER KONTZERTU ETA  
TALDE IKUSIKO OTE  
DITUZTE ORAINGO  
GAZTEEK URTE BATZUK  
BARRU?"**





**DRAGOIA ETA ANDREA**

# Esnatu



MIREN ALBERDI

**O**tsaila. Hilabete honetan otsemeak arreske jartzen dira, eta hortik datorkio izena. Katatila ere esaten zaio zenbait lekutan, katemeak ere arreske jartzen direlako. Garai hauetan zezenak mendietatik larreetara jaisten zirela eta, leku batzuetan zezenila ere deitzen zaio. Hiltxikia esaten zaio toki askotan, hilabeterik laburrena delako.

Bi festa nagusi ospatzen ditugu euskaldunok otsailean. Biek dute lotura lurrarekin eta, neguaren ondoren, esnatzearekin: Agate Deuna eta Inautea edo Aratusteak, hurrenez hurren. Biak ala biak kristautasunaren aurrekoak dira hainbat antropologoren iritziz.

Santa Agedari dagokionez, antzinako jai batetik letorke: neguaren ondoren, lurra iratzartzeko erritu zaharrekin loturik egongo litzateke – horretarako jotzen da lurra makilaz koplak kantatzerakoan –, eta beste jai anitz bezala, giristinoek bereganatu omen zuten. Euskal usadioan abere gisa irudikatzen da Agate Deuna, gehienetan katu edo ahuntz itxuraz.

Geroago etorriko da Inautea edo Inauteria. Hitz honen etimologiari dagokionez, bi teoria nagusi daude: *inau* (ama lurra esnatzeko errituala) eta te (denbora adierazteko) zatien elkarketa batetik; eta *inausi* (kimatu) hitzetik eratorria dela dioena, bestetik. Lehenengoan sartuko lirateke Joaldunak,

esaterako; beren joareak astinduz, lurra esnarazteko lehen ahalegina egiten dute. Bigarren ustearen arabera, berriz, zomorroen kontra egiteko garaiari egiten dio erreferentzia. Batak zein besteak urtarrilean hasi eta martxora arte irauten dute, nahiz eta horiek ere, kristautasunaren eraginez, denboran eta itxuraz aldatuak izan diren leku askotan.

Hori guztia jakinda, gauza bat garbi dago: euskaldunok betidanik izan dugu lotura estua ama lurrarekin eta naturaren zikloekin. Horien inguruan sortu eta eraiki izan dugu bizitza. Badirudi, ordea, euskaldunok predestinatuta gaudela zapalduak izatera; borrokan bizitzera, Santa Ageda bezperan bezala, eskean aritzera. Eskean aritzera bainoago, eskean bizitzera; geure hizkuntzan bizitzeko eskubidea behin eta berriz eskatu behar izateraino.

Kontuak kontu, ama lurra esnatzearekin batera, hobe genuke geu ere esnatuko bagina. Euskarak baditu hamaika zomorro inguruan, eta hobe genuke, horiek uxatzeko, adar lehorrak identifikatu eta inausiko bagenitu. Ez dadila negua behar baino gehiago luzatu; dei diezaiogun udaberriari. Har ditzagun makilak eta jo dezagun lurra; esna dezagun ama lurra, horrela baizik ez baita indarberrituko euskararen lurra. ■

## Bertsoa paperean

Gaia: Sagardo denboraldia  
Izena: Asier Garate  
Doinua: *Menditarra naiz*

### Udazken dena lanean pasa

ondoren a zer ardura  
ona edo txarra aterako den  
eduki liteke duda  
urtarrilaren erdi aldera  
daukagu gure eskura  
pandemiaren osteko lehen  
denboraldia heldu da.

### Ta otordura iritsi orduko

denok baso bana hartuz  
gozatzen degu barrika arteko  
esplikazio ta tratuz  
ohartzerako jarri ohi gera  
irrifarrez eta kantuz  
aprobetxatu denboraldia  
besteak errespetatuz.



# IZAN KA IRAKUR ZALE!



**EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO  
DESKONTUA IZANGO DUZU**  
bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

**MAXIXATZEN**

LAGUNTZAISA:



Euzko Legebiltzaria



**MILAR  
LARRAMENDI**

Etzetresna elektrikoak



**dyson**

**Miele**

**MILAR LARRAMENDI**IN AURKI DITZAKEZU  
**DYSON** ETA **MIELE** PRODUKTUAK

**www.milar.es** webgunean ere aukera zabala

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • [www.milar.es](http://www.milar.es)



**TK**

**KOPISTEGIA**

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxe: 943-85 20 91

[j.artetxe@fkkopistegia.es](mailto:j.artetxe@fkkopistegia.es)